



NOKIA 3120

Telefonoaren
erabilera-gida.

NOKIA

CE 168

ADOSTASUN-DEKLARAZIOA

Guk, NOKIA MOBILE PHONES Ltd, gure erantzukizun bakarraren baldintzapean aitortzen dugu RH-19 produktua ondoko kontseiluko Arau honetan ezarritako baldintzetara egokitzen dela: 1999/5/EE. Adostasun-deklarazioaren kopia bat dago helbide honetan: .

Copyright © 2004 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Debekatuta dago dokumentu hau osorik edo horren zati bat inolako eratan erreproduzitzea, transferitzea, banatzea edo jasotzea, Nokiaren alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Nokia, Nokia Connecting People, Xpress-on eta Pop-Port markak Nokia Corporation-en merkataritzako marka edo marka erregistratuak dira. Hemen aipatzen diren gainerako produktuak eta enpresen izenak haien jabeen merkataritzako marka edo marka erregistratuak izan daitezke.

Nokia tune Nokia Corporation-ek erregistratutako doinua da.

US Patent No 5818437 and other pending patents. T9 text input software Copyright (C) 1997-2004. Tegic Communications, Inc. All rights reserved.



Includes RSA BSAFE cryptographic or security protocol software from RSA Security.



Java is a trademark of Sun Microsystems, Inc.

Nokiak etengabe garatzeko politikarekin lan egiten du, eta dokumentu honetan deskribatutako produktueta aurrez ohartarazi gabe aldaketak eta hobekuntzak egiteko eskubidea dauka.

Nokiak ez du bere gain hartuko, inola ere, datuen edo diru-sarreraren galera, ez eta inolako kalterik, gertakaririk, ondoriozkorik edo zeharkakorik ere, horien arrazoia edozein dela ere.

Dokumentu honen edukia dagoen dagoenean emango da. Aplikatu beharreko legeak hala eskatzen duenean izan ezik, ez da inolako bermerik –berariazkorik edo inpliziturik– ematen, baina merkaturatzeko eta egokitzeko berme inplizitua ez da mugatzen dokumentu honen zehaztasunera, fidagarritasunera eta edukira. Nokiak dokumentu hau edozein unetan eta aurrez abisatu gabe berrikusteko edo merkatutik kentzeko eskubidea dauka.

Produktu jakin batzuk eskura egotea aldatu egin daiteke eskualde batetik bestera. Galde iezaiozu gertuen duzun Nokia banatzaileari. Bateriak botatzeko, erabili prozedura egokienak.

Aurkibidea

ZURE SEGURTASUNERAKO	11
Informazio orokorra	14
Erabiltzailearen gidaliburu honetan erabilitako tipografia	14
Sarbide-kodeak	14
Telefonoaren funtzioen deskribapen orokorra	16
Multimedia mezuen zerbitzua (MMS).....	16
Soinu polifonikoa (MIDI)	16
General Packet Radio Service (GPRS)	17
MIDP JavaTM aplikazioak	18
Nokiaren OTA doikuntza-zerbitzua	18
Memoria partekatua.....	18
1. Zure telefonoa	20
Teklak eta konektoreak	20
Pantaila zuria.....	21
Horma-papera.....	22
Pantaila-babesa.....	23
Energia aurreztea	23
Funtsezko adierazleak.....	23
2. Oinarrizko kontzeptuak.....	26
SIM txartela eta bateria jartzea.....	26
Bateria kargatu	28
Telefonoa piztea eta itzaltzea.....	29
Funtzionamendu arruntaren posizioa	30

Teklatua blokeatzea	30
Aurreko eta atzeko karkasak aldatzea.....	32
 3. Oinarrizko funtzioak	34
Deitzea.....	34
Telefono-zenbakia bizkor markatzea	35
Multikonferentzia bat egitea.....	35
Sartzen ari den deiari erantzutea edo deia ez hartzea.....	36
Deia zain uzteko aukera	37
Hitz egiten ari zarenean dituzun aukerak.....	37
Bozgorailua	38
 4. Testua idaztea.....	39
Testu prediktiboa funtzioa aktibatzea eta desaktibatzea	39
Testu prediktiboa funtzioa	40
Hitz konposatuak idaztea	41
Ohiko testuaren funtzioa	41
Testua idazteko iradokizunak.....	42
 5. Menuak erabiltzea	45
Menuko funtzio batean sartzea.....	45
Menuko funtzioen zerrenda	47
Mezuak (1. menua)	52
Testu-mezuak	52
Mezuak idaztea eta bidaltzea.....	53
Mezuak bidaltzeko aukerak.....	54
Mezu elektronikoak idaztea eta bidaltzea SMS bidez.....	55
Mezuak edo mezu elektronikoak irakurtzea eta haiei erantzutea SMS bidez	57
Sarrerako eta irteerako karpetak.....	58
Txantiloia.....	58

Artxibo-karpetak eta nire karpetak.....	59
Banaketa-zerrendak	59
Mezu-kontagailua.....	61
Multimedia mezuak	61
Multimedia-mezuak idaztea eta bidaltzea.....	62
Multimedia-mezuak irakurtzea eta horiei erantzutea	64
Sarrerako postontzia, Irteerako postontzia, Gordetako elementuak eta Bidalitako elementuak karpetak.....	65
Multimedia-mezuen memoria beteta	65
Mezuak ezabatzea.....	66
Ahots-mezuak	67
Informazio-mezuak.....	67
Mezuen doikuntzak.....	68
Testu-mezuen eta mezu elektronikoen doikuntzak.....	68
Gainidazketaren doikuntzak.....	69
Multimedia-mezuen doikuntzak.....	69
Letra-tipoaren tamaina doitzea	71
Zerbitzu-komandoak.....	71
Deien erregistroa (2. menua).....	71
Azken deien zerrenda.....	72
Deien kontagailua.....	72
Aurkibidea (3. menua).....	74
Kontaktuetarako doikuntzak aukeratzea	75
Izenak eta telefono-zenbakiak gordetzea (kontaktua gehitzea)	75
Kontaktu bati lotutako zenbakiak eta testu-elementuak memorian sartzea	76
Aurrez definitutako zenbakia aldatzea	77
Aurkibideko izen bati edo zenbaki bati irudi bat atxikitzea	77
Kontaktuak bilatzea.....	77
Izena, zenbakia edo testu-elementua editatzea edo irudi bat aldatzea	78

Kontaktuak ezabatzea.....	78
Zenbakiak, testu-elementuak edo irudiak ezabatzea	79
Kontaktuak kopiatzea.....	79
Bisita-txartelak bidaltzea eta hartzea	80
Markaketa bizkorra	80
Informazio-zenbakiak.....	81
Zerbitzu-zenbakiak	81
Norberaren zenbakiak	81
Dei-egileen taldeak.....	82
Moduak (4. menua).....	83
Doikuntzak (5. menua).....	84
Zuzeneko sarbide pertsonalak	84
Pantaila-babesa.....	85
Dataren eta orduaren doikuntzak.....	86
Erlojua	86
Data.....	86
Data eta eguna automatikoki eguneratzea	87
Dei-doikuntzak.....	87
Deiak desbideratzea.....	87
Edozein teklak erantzuten du.....	88
Automatikoki berriz deitzea.....	88
Markaketa bizkorra.....	88
Deia zain uzteko aukera	89
Deitu ondorengo laburpena	89
Dei-egilearen identitatea bidaltzea	89
Irteten diren deientzako linea	89
Telefonoaren doikuntzak	90
Telefonoaren hizkuntza	90
Automatikoki blokeatzea	90

Sare zelularren informazioa	91
Hasierako agurra	91
Sarea aukeratzea	92
SIM zerbitzuko ekintzak berrestea.....	92
Laguntza-testua aktibatzea	92
Hasierako tonua.....	92
Pantailaren doikuntzak.....	92
Horma-papera	92
Kolore-eskemak	93
Operadorearen logotipoa	94
Pantailaren distira.....	94
Tonuen doikuntzak.....	94
Osagarrien doikuntzak	96
Segurtasun-doikuntzak	97
Hasierako balioak berriro ezartzea.....	98
Alarma (6. menua).....	99
Galeria (7. menua)	100
Agenda (8. menua).....	102
Agendan ohar bat sortzea	103
Ohar bati lotutako alarma aktibatzea.....	104
Jokoak (9. menua)	104
Joko bat abiaraztea	105
Joko edo joko-multzo batean erabil daitezkeen aukera osagarriak.....	105
Jokoak deskargatzea	106
Jokoetarako memoriaren egoera	106
Jokoen doikuntzak	107
Aplikazioak (10. menua)	107
Aplikazio bat abiaraztea.....	107
Beste aukera batzuk ere badaude aplikazio baterako edo aplikazio-multzo baterako.....	108

Aplikazio bat deskargatzea	109
Aplikazioetarako memoriaren egoera	111
Gehigarriak (11. menua).....	111
Kalkulagailua.....	111
Moneta-bihurketa egitea.....	112
Atzerako kontaktaren tenporizadorea.....	113
Kronometroa.....	113
Denbora neurtzea eta banatzea.....	114
Fase bakoitzeko denborak.....	114
Denborak bistaratzea eta ezabatzea	115
Zerbitzuak (12. menua).....	115
Zerbitzuetara sartzeko eta horiek erabiltzeko oinarrizko prozedura.....	116
Telefona zerbitzuak erabiltzeko konfiguratzea.....	116
OTA mezu gisa jasotako zerbitzu-doikuntzak gordetzea.....	116
Zerbitzu-doikuntzak eskuz sartzeta	117
Zerbitzu batekin konektatzea.....	120
Zerbitzu baten orrietan nabigatzea	121
Nabigatzean telefono-teklak erabiltzea.....	121
Nabigazioan dauden aukerak.....	122
Zuzeneko deia.....	123
Zerbitzu bat deskonektatzea	123
Modu anitzeko nabigatzailearen itxura-doikuntzak	123
Cookien doikuntzak aukeratzea.....	124
Gogokoak	125
Gogokoak hartzea.....	125
Deskargatzea.....	125
Sarrerako postontzia.....	126
Zerbitzuko sarrerako postontziaren doikuntzak	127
Cache memoria ezabatzea	127

Baimen-ziurtagiriak	128
Baimen-ziurtagirien zerrenda bistaratzea.....	128
Segurtasun-adierazlea	128
Joan hona (13. menua).....	129
SIM zerbitzuak (14. menua).....	130
 6. PCrako konektagarritasuna	131
PC Suite.....	131
 7. Bateriari buruzko informazioa.....	133
Kargatzea eta deskargatzea	133
 ZAINKETA ETA MANTENTZE-LANA.....	135
 SEGURTASUNARI BURUZKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA	137

ZURE SEGURTASUNERAKO

Irakurri jarraibide erraz hauek. Arauak ez errespetatzea arriskutsua edo legez kontrakoa izan daiteke. Eskuliburu honetan informazio xeheagoa aurkituko duzu.



Ez piztu telefonoa mugikorrak erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.



ERREPIDEAN ERNE IBILTZEA FUNTSEZKOA DA

Ez erabili telefono mugikorra gidatzen ari zarenean.



INTERFERENTZIAK

Telefono mugikor guztiek jaso ditzakete haien errendimenduari eragin diezaieketen interferentziak.



ITZALI TELEFONOA OSPITALEETAN

Bete horren inguruko araudia. Itzali telefonoa tresna mediko batetik gertu zaudenean.



ITZALI TELEFONOA HEGAZKINETAN

Haririk gabeko gailuak –esate baterako telefono mugikorrak– erabiltzeak interferentziak sor ditzake hegazkinetan.



ITZALI TELEFONOA GASOLINA-ZERBITZUGUNEETAN

Ez erabili telefonoa zerbitzuguneetan. Ez erabili erregaitik edo produktu kimikoetatik gertu.



ITZALI TELEFONOA LEHERGAIETATIK GERTU

Ez erabili telefonoa leherketak egiten dituzten lekuetan. Irakurri erabili buruzko mugak eta bete horren inguruko arau guztiak.



ERABILI ZENTZUZ

Ez erabili telefonoa ohiko posizioan ez bada. Ez ukitu antena beharrezkoa ez bada.



ZERBITZU TEKNIKO GAITUA

Zerbitzu tekniko gaituko langileek bakarrik instalatu edo konpondu behar dute ekipoa.



OSAGARRIAK ETA BATERIAK

Erabili fabrikatzaileak onartutako osagarriak eta bateriak. Ez konektatu bateraezinak diren produktuak.



BESTE GAILU BATZUEKIKO KONEXIOA

Beste gailu batekin konektatu nahi baduzu, lehenik irakurri dagokion erabiltzailearen gidaliburua, segurtasun-jarraibideak zein diren ongi jakiteko. Ez konektatu bateraezinak diren produktuak.



SEGURTASUN-KOPIAK

Gogoan izan datu garrantzitsu guztien segurtasun-kopiak egin behar dituzula.



URAREKIKO ERRESISTENTZIA

Zure telefonoak ezin du ura jasan. Ez ezazu busti.



DEIAK

Ziurtatu telefonoa piztuta eta martxan dagoela. Markatu telefono-zenbakia, aurrezenbakia barne, eta ondoren sakatu .

Deia amaitzeko, sakatu . Dei bati erantzuteko, sakatu .



LARRIALDI-DEIAK

Ziurtatu telefonoa piztuta eta martxan dagoela. Sakatu  behar adina alditan (adibidez, dei bat amaitzeko, menutik ateratzeko, etab.) pantaila ezabatzeko. Markatu larrialdi-zenbakia eta sakatu  Adierazi zure kokapena. Ez moztu deia hori eskatu arte.

■ Sare-zerbitzuak

Gidaliburu honetan deskribatutako telefono mugikorra sare hauetan erabiltzeko onartuta dago: EGMS 900, GSM 1800 eta GSM 1900. Hiru bandako funtzioa sarearen arabera da. Kontsultatu tokiko zerbitzu-operadoreari funtzio hori kontratatu eta erabil dezakezun.

Eskuliburu honetan dauden funtzio batzuk sareko zerbitzuak dira. Telefonía mugikorreko zure operadoreari kontratatu beharreko zerbitzu bereziak dira. Sare-zerbitzuak erabili ahal izateko, operadorearekin kontratatu behar dituzu, eta horiek erabiltzeko behar diren jarraibideak eskuratu.



Oharra: Baliteke sare batzuek ez onartzea hizkuntzari dagozkion karaktere edo zerbitzu guztiak.

■ Osagarriei buruz

Kargagailua erabili aurretik, egiaztatu modeloaren zenbakia, bateragarria den jakiteko. Gailu hau ACP7, ACP-12 eta LCH-12 erabiltzaileentzat diseinaturik dago.



Oharra: Erabili bakarrik telefonoaren fabrikatzaileak telefono-modelo honentzat onartutako bateriak, kargagailuak eta osagarriak. Beste edozein mota erabiliz gero, telefonoaren onarpen edo berme guztiak bertan behera geratuko dira, eta arriskutsua izan daiteke.

Onartutako osagarriren bat badagoen jakiteko, jarri harremanetan banatzailearekin.

Edozein osagarriren elikatze-haria deskonektatzen duzunean, heldu entxufeari eta tira egin, ez egin tira haritik.

Informazio orokorra

■ Erabiltzailearen gidaliburu honetan erabilitako tipografia

Telefonoaren pantailako testuak urdinez agertzen dira, adibidez *Inserte la tarjeta SIM*.

Hautaketa-teklekin  zerikusia duten pantailako testuak, letra urdin eta lodiz agertzen dira, adibidez **Menú**.

■ Sarbide-kodeak

- **Segurtasun-kodea (5–10 digitu):** Segurtasun-kodea telefonoarekin batera ematen da, eta telefonoa baimenik gabe edonork ez erabiltzeko balio du. Aurrez definitutako kodea 12345 da. Aldatu kodea eta gorde kode berria leku seguruan eta telefonotik bereizita. Kodea aldatzeko eta telefonoa kode hori eska dezan konfiguratzeko, ikus *Segurtasun-doikuntzak*, 97. orrialdean.

- **PIN eta PIN2 kodeak (4–8 digitu):** Identifikazio pertsonaleko zenbakiak edo Personal Identification Number (PIN) delakoak SIM txartela baimenik gabe erabiltzetik babesten du. PIN kodea SIM txartelarekin batera ematen da.

Konfiguratu telefonoa, piztean PIN kodea eskatzeko. Ikus *Segurtasun-doikuntzak*, 97. orrialdean.

PIN2 kodea, SIM txartel batzuetan dagoena, beharrezkoa da hainbat funtziotarako, hala nola, kontsumo-unitateen kontagailuetarako.

Hainbat aldiz segidan okerreko PIN kodea sartzen baduzu, pantailan *SIM bloqueada agertuko* zaizu eta PUK kodea sartzea eskatuko zaizu. PUK kodea eskuratzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

- **PUK eta PUK2 kodeak (8 digitu):** Desblokeatzeko norberaren pasahitza edo Personal Unblocking Key (PUK) beharrezkoa da blokeatutako PIN kodea aldatzeko. Blokeatutako PIN2 kodea aldatzeko, PUK2 kodea behar da.

SIM txartelarekin kodeak ematen ez badizkizute, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin hari eskatzeko.

- **Murrizketa-pasahitza (4 digitu):** Pasahitz hau beharrezkoa da *Servicio de restricción de llamadas* erabiltzeko, Ikus Segurtasun-doikuntzak, 97. orrialdean. Pasahitz hau zerbitzu-hornitzaileari eska diezaiokezu.

Telefonoaren funtzioen deskribapen orokorra

Nokia 3120 telefonoak egunero erabiltzeko funtzio praktiko ugari eskaintzen ditu: agenda, erlojua, alarma, moduak eta beste asko. Gainera, Xpress-on™ estalki-sorta zabala daukazu zure telefonoarentzat. Karkasa aldatzeko, ikus Aurreko eta atzeko karkasak aldatzea, 32. orrialdean.

■ Multimedia mezuen zerbitzua (MMS)

Telefono honekin, testuz eta irudi batez osatutako multimedia-mezuak bidal ditzakezu, baita testuak, irudiak eta soinua dituzten mezuak jaso ere. Irudiak eta soinuak gorde egin ditzakezu telefonoa pertsonalizatzeko. Ikus Multimedia mezuak, 61. orrialdean.

■ Soinu polifonikoa (MIDI)

Soinu polifonikoa une berean sortzen diren hainbat soinu-elementuz osatuta dago, bozgorailu bidezko melodia gisa. Soinu polifonikoak dei-seinaleetan eta mezuertako abisu gisa erabiltzen dira. Telefonoak 40 bat instrumenturen soinu-osagaiak ditu eta soinu polifoniko gisa erabil daitezke; hala ere, telefonoak lau instrumentu bakarrik jo ditzake une berean. Telefonoak SP-MIDI formatua onartzen du (Scalable Polyphonic MIDI).

Multimedia-zerbitzuaren bidez dei polifonikoak jaso ditzake (ikus Multimedia-mezuak irakurtzea eta horiei erantzutea, 64. orrialdean), Galeria menuaren bidez deskarga daitezke (ikus Galeria (7. menua), 100. orrialdean) edo, bestela, PC Suite bidez (ikus PC Suite, 131. orrialdean).

■ General Packet Radio Service (GPRS)

GPRS teknologia sare-zerbitzu bat da, eta, horri esker, telefono mugikorra erabil daiteke Internet Protokoloan (IP) oinarritutako sare baten bidez datuak bidaltzeko eta jasotzeko. GPRS teknologia datu-garraiataile bat da, eta Internetera eta hori bezalako datu-sareetara haririk gabe sartzeko aukera ematen du. GPRS erabiltzen duten aplikazioak hauek dira: MMS eta SMS (SMS, Short Message Service), nabigazio-saioak eta Java aplikazioen deskarga. Kontuan izan telefonoak bi GPRS konexio onartzen dituela aldi berean. Adibidez, multimedia-mezu bat jaso dezakezu eta, une berean, nabigazio-saio bat aktibatuta eduki.

GPRS teknologia erabili ahal izateko:

- GPRS zerbitzuaren eskuragarritasunari buruzko informazioa lortu nahi baduzu edo haren harpide izan nahi baduzu, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.
- Gorde GPRS aukerak GPRSrekin erabilitako aplikazio bakoitzeko.

Ikus Telefonoa zerbitzuak erabiltzeko konfiguratzea, 116. orrialdean, eta Mezuen doikuntzak, 68. orrialdean.

GPRSaren eta aplikazioen prezioak

Bai GPRS konexio aktiboak, bai GPRS bidez erabilitako aplikazioek prezio finkoa dute. Prezioei buruzko informazio xeheagoa eskuratzeko, jarri harremanetan sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.

■ MIDP JavaTM aplikazioakTM

Telefonoak Java teknologia onartzen du, eta telefono mugikorretarako berariaz diseinatuta dauden MIDP JavaTM joko batzuk ditu. Beste aplikazio eta joko batzuk ere deskarga ditzakezu zure telefonoan. Ikus Aplikazioak (10. menua), 107. orrialdean.

■ Nokiaren OTA doikuntza-zerbitzua

Zerbitzu batzuk erabiltzeko, doikuntza egokiak egin behar dira telefonoan. Doikuntzak zuzenean jaso ditzakezu OTA (Over The Air) mezu gisa, eta horiek gorde besterik ez duzu egin behar. Doikuntzei buruzko informazioa lortzeko eta nola eskuratu jakiteko, jarri harremanetan hurbileneko Nokia banatzailearekin.

■ Memoria partekatua

Telefonoaren funtzio hauek memoria berbera erabiltzen dute: aurkibidea, testu- eta multimedia-mezuak, galeriako dei-irudiak eta -seinaleak, agenda, gogokoak eta jokoak eta Java aplikazioak. Funtzio horiek erabiliz gero, memoria partekatzen duten gainerako funtzioentzako memoria murriz daiteke. Edozein funtzio gehiegi erabiltzen bada gertatzen da hori.

Adibidez, irudi-pila bat, Java aplikazioak, etab. jasotzean, baliteke memoria partekatu guztia erabiltzea, eta memoria beterik dagoela adierazten duen mezua erakuts dezake telefonoak. Kasu horretan, aurrera segitu aurretik, ezabatu memoria partekatua erabiltzen duen aplikazioen bat edo gordetako sarrera batzuk.

1. Zure telefonoa

■ Teklak eta konektoreak

1. Pizteko tekla ①


Telefonoa piztu eta itzaltzen du. Adibidez, teklatua blokeatuta dagoenean, pizteko tekla labur sakatzen baduzu, telefonoaren pantailaren argia piztu eta gutxi gorabehera 15 segundo egoten da piztuta.

2. eta aukeraketa-teklak

Tekla hauen funtzioa pantailan haien gainean azaltzen zaien informazio-testuaren arabera da, adibidez *Menú* eta *Guía*, pantaila hutsik dagoenean.

3. Lau noranzkoetan mugitzeko tekla, ikur hauek dituenak: , , eta

Izen, telefono-zenbaki, menu eta doikuntza batetik bestera eta agendan mugitzeko dira. Pantaila zuri dagoela,  sakatzen baduzu, *Crear mensaje* menua zabalduko da;  sakatzen baduzu, berriz, *Agenda* menua. Dei batean  eta  sakatzen badituzu, bolumena doi dezakezu.



Pantaila zuri dagoela eta dei batean, — edo — sakatzen baduzu, kontaktuen zerrenda zabaltzen da.

4.  teklak telefono-zenbaki bat markatzen du edo dei bati erantzuten dio. Pantaila zuri dagoenean, markatutako azken zenbakiak bistaratzen ditu.
5.  teklak aktibatutako deia amaitzen du. Edozein funtziotatik ateratzeko balio du.
6. 0  - 9wxyz teklek zenbakiak eta karaktereak sartzen dituzte
* + eta #  funtzio desberdina duten hainbat gauzatarako erabiltzen dira.

Pantaila zuri dagoela,1  luze sakatuz gero, ahots-postontzira deituko duzu.
Pantaila zuri dagoela, ... Interneteko tekla luze sakatzen baduzu, aktibo dagoen zerbitzuko hasierako orria irekiko da. Ikus Zerbitzu batekin konexio bat ezartzeko atala, 120. orrialdean.


7. Kargagailuaren konektorea
8. ML eramangarrientzako Pop-Port™ konektorea eta datu-kablea, adibidez.

■ Pantaila zuria

Telefonoaren pantaila zuri egoten da erabiltzeko prest dagoenean eta karaktererik sartu ez denean.

1. Operadorearen logotipoa bistaratzen du.

2. Sare zelularrak uneko kokapenean seinalearen zein intentsitate duen adierazten du. Hago zenbat eta altuagoa izan, orduan eta intentsitate handiagoa izango du seinaleak.



3. Bateriaren karga-maila adierazten du. Hago zenbat eta altuagoa izan, orduan eta potentzia gehiago dago baterian.

4. Pantaila zuri dagoenean, ezkerreko aukeraketa-tekla *Menú* da.

5. Pantaila zuri dagoenean, eskuineko aukeraketa-tekla *Guía* edo *Ir a* (zuzeneko sarbide pertsonala). Kasu hauetan, aukeraketa-tekla sakatzeko duzunean

- *Guía*, *Guía* menura sar zaitezke.
- *Ir a*, funtzio espezifikora joan zaitezke (zuzeneko sarbide pertsonala) eta aukeratu. Zuzeneko sarbide pertsonaleko funtzioak definitzeko, ikus *Zuzeneko sarbide pertsonalak*, 84. orrialdean. Halaber, funtzio berberak aktiba ditzakezu *Ir a* menua aukeratuta. Ikus Joan hona (13. menua), 129 orrialdean.

Ikus, halaber, *Funtsezko adierazleak*, 23. orrialdean.

Horma-papera

Pantaila zuri dagoenean, hondoan irudi bat, horma-papera, bistartzeko defini daiteke telefonoa. Ikus *Horma-papera* 92. orrialdean.

Pantaila-babesa

Pantaila zuri dagoenean pantaila-babes bat bistartzeko moduan defini dezakezu telefonoa. Ikus *Pantaila-babesak*, 85. orrialdean.

Energia aurrezte

Energia aurrezteko, erloju digital bat bistaratzen da pantailan, denbora-tarte batean telefonoko funtziorik erabiltzen ez denean. Pantaila-babesa desaktibatzeke, sakatu edozein tekla.



Ordua definituta ez badago, 00:00 agertuko da. Ordua jartzeko, ikus *Erlojua*, 86. orrialdean.

Gainera, pantaila-babes bat defini dezakezu *Galería* aukeran. Ikus, halaber, *Pantaila-babesak*, 85. orrialdean.

Funtsezko adierazleak



Testu-mezu bat edo batzuk edo testua irudiekin jaso dituzula adierazten du. Ikus *Mezuak* edo *mezu elektronikoak* irakurtzea eta haiei erantzutea SMS bidez, 57. orrialdean.



Multimedia mezu bat edo batzuk jaso dituzula adierazten du. Ikus *Multimedia mezuak* irakurtzea eta horiei erantzutea, 64. orrialdean.



Ahots-mezu bat edo batzuk jaso dituzula adierazten du. Ikus *Ahots-mezuak* 67. orrialdean.



Telefono-teklatura blokeatuta dago. Ikus Teklatura blokeatzea 30. orrialdean.



Aviso de llamada entrante aukera *Desactivado* bezala definituta badago eta *Tono de aviso para mensajes* aukera *Desactivado* badago, telefonoak ez du joko dei bat edo testu-mezu bat jasotzen denean. Ikus Tonuen doikuntzak, 94. orrialdean.



Alarma Activar gisa definituta dago. Ikus Alarma (6. menua), 99. orrialdean.



Telefonoan galdutako dei bat jaso da. Ikus Deien erregistroa (2. menua), 71. orrialdean.



Atzerako kontaketa tenporizadorea martxan dago. Ikus Atzerako kontaketa tenporizadorea, 113. orrialdean.



Kronometroa bigarren mailan ari da funtzionatzen. Ikus Kronometroa 113. orrialdean.



GPRS markaketa-konexioa ezarri da. Adierazlea pantailaren goiko aldean, ezkerrean, agertzen da.



Sarrerako edo irteerako dei bat edo testu-mezu bat dago GPRS markaketa-konexio batean. La conexión GPRS se suspenderá.



Dei guztiak beste zenbaki batera daude desbideratuta, *Desvío de todas llamadas de voz*. Bi telefono-línea badituzu, lehen linearen desbideratzearen adierazlea **1↑** da, eta bigarren deiarena, berriz, **2↑**. Ikus Deiak desbideratzea, 87. orrialdean.

- 102** Bi telefono-linea badituzu, aukeratutako linea zein den adierazten du. Ikus *Irteten ari den deia*rentzako linea, 89. orrialdean.
-  Bozgorailua aktibatu egin da. Ikus *Bozgorailua*, 38. orrialdean.
-  Deiak erabiltzaile-talde itxi batera mugatu dira. Ikus *Segurtasun-doikuntzak*, 97. orrialdean.
-  Tenporizadorea aktibatuta dago. Ikus *Moduak* (4. menua), 83. orrialdean.
-  ,  o  ML osagarri eramangarria, esku libreko aukera edo audiofono-egokigailua telefonoari konektatuta dago.
Pantaila zuriarekin data eta ordua bistaratzeko moduan konfiguratzeko telefonoa, ikus *Erlojua* 86. orrialdean eta *Data* 86. orrialdean.

2. Oinarrizko kontzeptuak

■ SIM txartela eta bateria jartzea.


Ez utzi SIM txartel txikia haurren eskueran.

- SIM txartela eta haren kontaktuak oso erraz honda daitezke harramazka edo tolesturekin; kontuz erabili behar duzu, beraz, telefonoan sartzerakoan edo ateratzerakoan.
- SIM txartela ipini aurretik, ziurtatu telefonoa itzalita dagoela eta osagarri guztiak deskonektatuta daudela.


1. Telefonoaren atzeko karkasa ateratzeko:

Telefonoaren atzealdea goraka duzula, saka ezazu atzeko estalkiaren irekierabotoia (1) eta irrista ezazu kanporantz (2).


Bateria kentzeko, altxa ezazu ateratzeko daukan erlaitzetik edo tartetik tira eginez (3).




2. SIM txartelaren gordelekua ireki tira egin kontu handiz gordelek ixteko klipetik (4) eta ireki (5).




3. Sartu SIM txartela dagokion lekuan (6). Ziurta ezazu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela eta urre-koloreko kontaktuak irudian bezala jarrita daudela.



4. Itxi SIM txartelaren gordelekua (7) eta presio egin behera, ongi sartu arte.




5. Jarri bateria (8).
6. Irristatu atzeko karkasa bere lekuraino (9).



■ Bateria kargatzea

1. Konektatu kargagailuaren haria telefonoaren oinarriko konektorerara.
2. Konektatu kargagailua korrante alternoko hartune batera. Telefonoa piztuta badago, *Cargando la batería* testua bistaratuko da une batez. Bateria erabat deskargatuta badago, minutu batzuk pasa daitezke pantailan karga-adierazlea agertu arte edo deia egin ahal izan arte.



Kargagailua konektatuta egonagatik telefonoa erabil daiteke.

Kargatzeko behar duen denbora erabilitako bateriaren eta kargagailuaren arabera da. Adibidez, ACP-7 kargagailuarekin BL-5C bateria kargatzeko hiru ordu behar dira gehienez, pantaila zuri badago.

■ Telefonoa piztea eta itzaltzea



Oharra: Ez piztu telefonoa mugikorrak erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

Luze sakatu pizteko tekla ①.

Kontuan izan SIM txartela sartuta egonda ere pantailan *Inserte la tarjeta SIM* edo *Tarjeta SIM no admitida* oharra agertzen bada, sareko operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin jarri beharko duzula harremanetan. Telefonoak ez du onartzen 5 volt-eko SIM txartelik eta baliteke txartela aldatu behar izatea.



- Telefonoak PIN kodea eskatzen badu, sar ezazu (pantailan **** agertuko da) eta sakatu Aceptar.

Ikus, halaber, *PIN kodearen eskaera* Segurtasun-doikuntzak atalean, 97. orrialdean, eta Sarbide-kodeak 14. orrialdean.

- Telefonoak segurtasun-kodea eskatzen badu, sar ezazu (pantailan **** agertuko da) eta sakatu Aceptar.

Ikus, halaber, Sarbide-kodeak 14. orrialdean.

■ Funtzionamendu arruntaren posizioa

Erabili telefonoa funtzionamenduko posizio normaletan soilik. Telefonoak antena du. Irrati-uhinen bidezko beste transmisio-gailu batzuekin gertatzen den bezala, telefonoa piztuta dagoenean, ez ukitu antena beharrezkoa ez bada. Gorputzak antena ukitzeak deia-eragineari eragiten dio, eta telefonoak funtzionatzeko behar duen potentzia-maila inolako beharrik gabe igotzeko dezaiteke. Hitz egiten ari zarenean antena ukitzen ez baduzu, antenaren errendimendua optimizatu egingo da, eta telefonoko elkarrizketaren iraupena ere bai.



■ Teklatua blokeatzea

Funtzio honek teklatua blokeatzen du, tekla konturatu gabe saka ez daitezkeen, adibidez, telefonoa poltsan daramazunean.

- Teklatua blokeatzea

Pantaila zuri dagoela, sakatu **Menú** eta, ondoren, * + 1,5 segundo igaro aurretik.

- Teklatua desblokeatzea

Sakatu **Desbloq.** eta, ondoren, * + 1,5 segundo igaro aurretik.

Teklatua blokeatuta dagoela dei bati erantzuteko, sakatu **■** Hitz egiten ari zarela, telefonoa normal erabil daiteke. Deia amaitzean edo ez onartzean, teklatua automatikoki blokeatuko da berriro.

Teklatua automatikoki blokeatzeari buruzko informazioa eskuratzeko, ikus **Automatikoki blokeatzea** 90. orrialdean.

Hitz egiten ari garenean teklatura blokeatzeko, ikus Hitz egiten ari zarenean dituzun aukerak, 37. orrialdean.




Oharra: Teklatura babesteko aukera aktibatuta dagoenean, telefonoan programatutako larrialdi-zenbakietara deitu daiteke (adibidez, 112 zenbakira edo beste larrialdi-zenbaki ofizial batera). Markatu larrialdi-zenbakia eta sakatu  Azken digitua sakatu arte ez da zenbakirik bistaratuko.

■ Aurreko eta atzeko karkasak aldatzea


Tapa aldatu aurretik, egiazta ezazu telefonoa itzalita eta kargagailutik edo beste edozein gailutatik deskonektatuta dagoela. Saiatu osagarri elektronikoak ez ukitzen tapak aldatzen dituzun bitartean. Gorde eta erabili beti telefonoa tapak jarrita dituela.

1. Atera ezazu telefonoaren atzeko karkasa.

Telefonoaren atzealdean goraka duzula, saka ezazu atzeko estalkiaren irekiera-botoia (1) eta irrista ezazu kanporantz (2).




2. Aurreko karkasa kentzeko, tira poliki telefonoaren atzeko aldetik eta bereizi aurreko karkasatik, telefonoaren beheko aldetik hasita.




3. Jar ezazu tekla babesteko pieza aurreko karkasa berrian.

4. Karkasaren aurreko aldea jartzeko, elkartu lehenik telefonoa eta karkasa; ondoren, presio pixka bat egin telefonoaren goiko aldean, irtenguneak behar bezala itxi arte.



5. Jar ezazu atzeko karkasa telefonoaren parean (1) eta irristat karkasa bere lekuan (2), ixteko botoia behar bezala egokit



3. Oinarrizko funtzioak

■ Deitzea

1. Sartu hartzailearen telefono-zenbakia, aurrezenbaki eta guzti. Okerreko karaktere bat idazten baduzu, sakatu **Borrar** ezabatzeko. Nazioarteko dei bat egiteko, sakatu * + bi aldiz nazioarteko aurrezenbakia sartzeko (nazioarteko sarbide-kodearen ordeaz erabil dezakezu + zeinua) eta, ondoren, sartu herrialdearen kodea, aurrezenbakia (hala behar izanez gero, hasierako zerorik gabe), eta hartzailearen telefono-zenbakia.
2. Sakatu **☎** zenbaki horretara deitzeko.
3. Sakatu **☎** deia amaitzeko edo dei-saiakera geldiarazteko.

Ikus, halaber, **Hitz egiten ari zarenean dituzun aukerak 37. orrialdean**.

Dei bat aurkibidearen bidez egitea

- Pantaila zuri dagoela, sakatu **↵** edo **↶** nahi duzun izena aurkitzeko edo idatzi izenaren lehen karakterea eta berak bilatuko du. Ikus, halaber, **Kontaktuak bilatzea 77. orrialdean** eta **Izenak eta telefono-zenbakiak gordetzea (kontaktua gehitzea) 75. orrialdean**. Sakatu **↵** pantailan agertzen den zenbakira deitzeko.

Azken zenbakiak berriro markatzea

- Pantaila zuri dagoela, sakatu **↵** behin, dei egin diezun edo deitzen saiatu zaren azken 20 zenbakien zerrendan sartzeko. Mugitu nahi duzun zenbaki edo izenera arte, eta sakatu **↵** deitzeko.

Ahots-postontzira deitzea

- Pantaila zuri dagoela, luze sakatu **1** **00** tekla, edo sakatu **1** **00** eta **↵**.

Telefonoak ahots-postontziaren zenbakia eskatzen badu, sartu eta sakatu **Aceptar**.
Ikus, halaber, **Ahots-mezuak**, 67. orrialdean.

Telefono-zenbakia bizkor markatzea

Esleitu telefono-zenbaki bat bizkor markatzeko tekletako bati, **2 abc**-tik **9 wxyz**-ra. Ikus **Markaketa bizkorra**, 80. orrialdean. Deitu telefono-zenbakira bi era hauetako bat erabilita:

- Sakatu zuk aukeratutako markaketa bizkorreko tekla eta, ondoren, **↵**.
- *Marcación rápida* funtzioa aktibatuta badago, luze sakatu bizkor markatzeko tekla bat, deia egiten hasi arte. Ikus **Markaketa bizkorra**, 88. orrialdean.

Multikonferentzia bat egitea

Sare-zerbitzu honek multikonferentzia batean sei pertsonak parte hartzeko aukera ematen du.

1. Deitu lehenengo solaskidearen zenbakira.
2. Beste solaskide bati deitzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Llamada nueva*.
3. Sartu, edo berreskuratu kontaktuen zerrendatik, hurrengo solaskidearen telefono-zenbakia eta sakatu **Llamar**. Lehen deia zain geratuko da.

4. Solaskide berriak deiari erantzuten dionean, sar ezazu lehen solaskidea multikonferentzian. Sakatu **Opciones** eta aukeratu *Multiconferencia*.
5. Multikonferentzian beste solaskide bat sartzeko, eman berriro 2tik 4rako pausoak.
6. Solaskideetako batekin elkarrizketa pribatua izateko: Sakatu **Opciones**, aukeratu *En privado* eta aukeratu nahi duzun partaidea.
Multikonferentzian berriro sartzeko, egin 4. pausoan deskribatutakoa.
7. Multikonferentzia amaitzeko, sakatu .

■ Sartzen ari den deiari erantzutea edo deia ez hartzea

Sakatu  sartzen ari den deiari erantzuteko, eta  deia amaitzeko.

Sakatu  sartzen ari den deia ez onartzeko.

Sakatu *Silenciar*, erabilgarri badago, deiaren seinalea isilarazteko. Ondoren, erantzun deiari edo ez onartu deia.



Iradokizuna: *Desvío si ocupado* funtzioa adibidez deiak ahots-postontzira desbideratzeko aktibatuta badago, deia onartzen ez badugu, dei hori desbideratu egingo da. Ikus *Deiak desbideratzea*, 87. orrialdean.

Deia zain uzteko aukera

Hitz egiten ari zarela, sakatu  zain dagoen deiari erantzuteko. Lehen deia zain geratuko da. Sakatu  aktibo dagoen deia amaitzeko. *Llamada en espera* funtzioa aktibatzeko, ikus *Deia zain*, 89. orrialdean.

■ Hitz egiten ari zarenean dituzun aukerak

Hitz egiten ari zarenean dituzun aukeretako asko sare-zerbitzuak dira.

Sakatu *Opciones* hitz egiten ari zarela, ondoren aipatuko ditugun aukeretako batean sartzeko:

Silenciar micrófono edo *Activar micrófono*, *Finalizar llamada*, *Finaliz. todas llam.*, *Guía*, *Menú* eta *Retener* edo *Activar*, *Llamada nueva*, *Multiconferencia*, *En privado*, *Responder*, *Rechazar* eta *Altavoz* edo *Teléfono*.

Bloquear teclado teklatuaren blokeoa aktibatzeko.

Enviar DTMF DTMF tonu-kateak bidaltzeko, adibidez, pasahitzak edo bankuko kontu-zenbakiak. Sartu DTMF tonu-katea edo bilatu aurkibidean eta sakatu *Aceptar*. Gogoratu w itxaroteko karakterea eta p etenaldiko karakterea sartu behar dituzula, * + tekla behin eta berriro sakatuta.

Conmutar, aktibo dagoen deiaren eta zain dagoenaren artean txandakatzeko; *Transferir*, zain dagoen dei bat aktibo dagoenarekin konektatzeko eta bi deietatik deskonektatzeko.

Bozgorailua

Telefonoan integratutako bozgorailua erabil dezakezu telefonoaren esku libreko funtzioa erabiltzeko.



Oharra: Bozgorailua erabiltzen duzunean, ez eduki telefonoa belarriaren ondoan, bolumena oso altu egon baitaiteke.

Bozgorailua aktibatzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Altavoz*, edo sakatu *Altavoz* aukeraketa-tekla horretarako aukera baduzu. Dei batean bozgorailua desaktibatzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Teléfono*, edo, bestela, sakatu **Teléfono** aukeraketa-tekla, horretarako aukera baduzu.

Esku libreko CARK126 unitatea edo esku libreko eramangarria telefonora konektatuta baduzu, aukeren zerrendako *Teléfono* funtzioaren ordez *Manos libres* edo *ML portátil* agertuko da, eta **Teléfono** aukeraketa-teklaren ordez, hurrenez hurren, *M. libres* edo *ML port.*

4. Testua idaztea

Testua sar dezakezu, adibidez, mezu bat idazten ari zarenean, testua sartzeko ohiko funtzioa erabilia edo testu prediktiboaren bidez.

Testua idaztean, pantailaren goiko ezkerreko aldean,  adierazlea bistaratuko da testu prediktiboaren bidez idazten ari bazara, eta  testua sartzeko ohiko bidea erabiltzen ari bazara. Maiuskulen eta minuskulen erabilera **abc**, **abc** edo **ABC** adierazleen bidez adierazten da; horiek testua sartzeko adierazlearen ondoan daude. Letra larrietatik letra xeheetara, eta alderantziz, pasatzeko, sakatu .

Zenbakiak sartzeko modua **123** adierazlearen bidez azaltzen da, eta zenbakien modutik alfabetoaren modura **# ↵** luze sakatuta pasa daiteke.

■ Testu prediktiboa funtzioa aktibatzea eta desaktibatzea

Idazten hastera zoazenean, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Diccionario*.

- Testu prediktiboa funtzioa aktibatzeko, hautatu hiztegien aukera–zerrendako hizkuntza bat. Zerrendako hizkuntzekin bakarrik aukera daiteke testu prediktiboa funtzioa.
- Testua idazteko metodoa berriro erabiltzeko, sakatu *Desact. diccionario*.



Iradokizuna: Testu prediktiboa funtzioa bizkor aktibatzeko edo desaktibatzeko, sakatu bi aldiz **# ↵** edo luze sakatu **Opciones** tekla.

■ Testu prediktiboa funtzioa

Edozein letra sar daiteke tekla bakar bat sakatuta. Testu prediktiboa funtzioak telefonoak duen hiztegi bat erabiltzen du, eta hiztegi horretara hitz gehiago sar daitezke.

1. Hasi hitz bat idazten **2 abc** teklatik **9 wxyz** teklara bitarteko teklekin. Letra bakoitza idazteko, sakatu dagokion tekla behin bakarrik. Hitza aldatu egiten da tekla bat sakatzen duzun bakoitzean.



Adibidea: hiztegia aukeratuta dugula, **Nokia** idazteko, sakatu **6 mno** behin **N** sartzeko, behin **6 mno** **O** sartzeko, **5 jkl** behin **K** sartzeko, **4 ghi** behin **I** sartzeko eta **2 abc** behin **A** sartzeko:



Modu alfabetikoa aktibo dagoela zenbaki bat sartzeko, luze sakatu zenbaki horri dagokion zenbaki-tekla.

Testua idazteari buruzko informazio gehiago izateko, ikus *Testua idazteko iradokizunak*, 42. orrialdean.

2. Idatzi beharreko hitza behar bezala idatzi ondoren, berretsi eta utzi tarte bat **0**  teklarekin edo batetik bestera mugitzeko tekletako bat sakatuta. Kurtsorea mugiarazteko ere erabil daiteke mugitzeko tekletako bat.

Hitza zuzena ez bada, sakatu ... behin eta berriz, edo sakatu **Opciones** eta aukeratu *Coincidencias*. Idatzi nahi duzun hitza agertzen denean, berrets ezazu.

Hitzaren atzean ? karakterea agertzen bada, horrek esan nahi du idatzi nahi duzun hitza ez dagoela hiztegian. Hitz hori hiztegian sartzeko, sakatu **Escribir**, sartu hitza (testua idazteko ohiko funtzioa erabilita) eta sakatu **Guardar**. Hiztegia beteta dagoenean, hitz berria zaharrenaren ordeztutako da.

3. Hasi hurrengo hitza idazten.

Hitz konposatuak idaztea

Idatzi hitzaren lehen zatia eta berretsi **⏏** sakatuta. Idatzi hitzaren azken zatia eta berretsi.

■ Ohiko testuaren funtzioa

Sakatu zenbaki-tekla bat **1-9** -tik **9 wxyz** -ra behin eta berriro, nahi duzun karakterea agertu arte. Zenbaki-tekla idatz daitezkeen karaktere guztiak ez dira agertzen tekla horien gainean. Erabil daitezkeen karaktereak *Idioma del teléfono* menuan aukeratutako hizkuntzaren arabera dira. Ikus Telefonoaren hizkuntzak, 90. orrialdean.

Modu alfabetikoa aktibo dagoela zenbaki bat sartzeko, luze sakatu zenbaki horri dagokion zenbaki-tekla.

- Sartu nahi duzun hurrengo letra sartu berri duzun letraren tekla berean badago, itxaron kurtsorea agertu arte, edo sakatu mugitzeko edozein tekla; ondoren, idatzi letra.
- Puntuazio-markak eta ohiko karaktere bereziak **1**  zenbaki-teklan daude.

Testua idazteari buruzko informazio gehiago izateko, ikus *Testua idazteko iradokizunak*, 42. orrialdean.

■ Testua idazteko iradokizunak

Testua idazteko funtzio hauek ere eskura dituzu:

- Tarte bat sartzeko, sakatu **O** .
- Kurtsorea ezkerrera, eskuinera, behera edo gora mugitzeko, sakatu, hurrenez hurren, **(** , **)** , **↵** edo **↶** mugitzeko teklak.
- Kurtsorearen ezkerreko aldeko karakterea ezabatzeko, sakatu **Borrar**. Luze sakatu **Borrar** tekla, karaktereak bizkor ezabatzeko.

Mezua idazten ari zarela, karaktere guztiak batera ezabatzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Borrar texto*.

- Testu prediktiboa funtzioa erabilita hitz bat sartzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Insertar palabra*. Idatzi hitza testua idazteko ohiko funtzioa erabilita eta sakatu **Guardar**. Hitz hori hiztegian sartuko da.

- Karaktere bereziak sartzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Insertar símbolo*. Hala ere, testua idazteko funtzioa erabiltzen ari bazara, sakatu ***+** , eta, testu prediktiboaren bidez idazten ari bazara, sakatu ***+** .

Karaktere batera mugitzeko, sakatu mugitzeko edozein tekla eta sakatu **Utilizar** karakterea aukeratzeko.

Honela ere mugi zaitezke karaktere batera; **2 abc** , **4 ghi** , **6 mno** edo **8 tuv** sakatu eta karakterea aukeratu **5 jkl** sakatuz.

- Aurpegierak sartzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Insertar símbolo*. Hala ere, testua idazteko funtzioa erabiltzen baduzu, sakatu ***+** bitan, edo bestela luze sakatu ***+** karaktere berezien taula ikusteko, eta ondoren sakatu berriro ***+** .

Aurpegiera batera mugitzeko, sakatu mugitzeko edozein tekla eta sakatu **Utilizar** aukeratutako aurpegiera sartzeko.

2 abc , **4 ghi** , **6 mno** eta **8 tuv** sakatuta ere mugi zaitezke edozein aurpegieratara, eta nahi duzuna aukeratu **5 jkl** sakatuta.

- Modu alfabetikoa aktibo dagoela zenbaki bat sartzeko, sakatu **Opciones** eta hautatu *Insertar número*. Sartu zenbakia edo bilatu aurkibidean eta sakatu **Aceptar**.
- Aurkibidean izena sartzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Insertar contacto*. Telefono-zenbakia edo izenarekin lotutako testu-elementu bat sartzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Ver detalles*.

Aukeratu nahi duzun xehetasuna eta sakatu **Seleccion**.

5. Menuak erabiltzea

Telefonoak funtzio ugari eskaintzen ditu, eta horiek menutan eta azpimenutan multzokatzen dira. Menuko aukera gehienek laguntza-testu labur bat dute. Laguntza-testua ikusteko, joan zaitez nahi duzun menuko funtzioraino eta itxaron 15 segundo inguru. Laguntza-testutik ateratzeko, sakatu *Atrás*. Ikus Laguntza-testua aktibatzea, 92. orrialdean.

■ Menuko funtzio batean sartzea

Menuan gora eta behera ibiliz

1. Menura sartzeko, sakatu *Menú*.
2. Mugitu menuan  edo  erabiliz, eta aukeratu, adibidez, *Ajustes*, *Seleccion* sakatuta.
3. Menuak azpimenuak badauzka, aukeratu nahi duzuna, adibidez, *Ajustes de llamada*.
4. Era berean, aukeratutako azpimenuak beste azpimenu batzuk baditu, errepikatu 3. pausoa. Aukeratu hurrengo azpimenua, adibidez, *Cualquier tecla responde*.
5. Hautatu nahi duzun aukera.
6. Sakatu *Atrás* aurreko menu-mailara itzultzeko eta *Salir* menutik ateratzeko.

Metodo laburtuaren bidez

Menuak, azpimenuak eta aukerak zenbakituta daude, eta horietako batzuetara haien metodo laburtuko zenbakiekin sar daiteke.

Menura sartzeko, sakatu **Menú**. Idatzi bizkor, bi segundo baino lehen, sartu nahi duzun menuko funtzioaren aurkibideko zenbakia. Kontuan izan 1. menuko funtzioetara sartzeko **Menú** sakatu behar duzula eta **0**  eta **1**  sakatu; azkenik, metodo laburtuko gainerako zenbakiak sartu behar dituzu. Sakatu **Atrás** aurreko menu-mailara itzultzeko eta **Salir** menutik ateratzeko.

■ Menuko funtzioen zerrenda

1. Mensajes



1. Mensajes de texto
 1. Crear mensaje
 2. Buzón de entrada
 3. Crear correo SMC
 4. Elemen. enviados
 5. Archivo
 6. Plantillas
 7. Carpetas propias
 8. Listas distribución
 9. Borrar mensajes
 10. Contad. mensajes
2. Mensajes multim.
 1. Crear mensaje
 2. Buzón de entrada
 3. Buzón de salida
 4. Elemen. enviados
 5. Elem. guardados
 6. Borrar mensajes
3. Mensajes de voz
 1. Escuchar los mensajes de voz
 2. Número del buzón de voz
4. Mensajes de info
 1. Servicio de información

2. Temas
3. Idioma
4. Temas de info guardados en SIM
5. Leer¹
5. Ajustes mensajes
 1. Mensajes de texto
 2. Mensajes multim.
 3. Otros ajustes
6. Comandos servicio

2. Reg. Llamadas



1. Llamadas perdidas
2. Llamadas recibidas
3. Llamadas enviadas
4. Borrar listas de últimas llamadas
 1. Todas
 2. Perdidas
 3. Recibidas
 4. Enviadas
5. Duración de la llamada
 1. Duración de la última llamada
 2. Duración de las llamadas recibidas

1. Informazio-mezuak jasotzen badira bakarrik bistaratzen da menu hau.

3. Duración de las llamadas enviadas
4. Duración de todas las llamadas
5. Poner a cero los temporizadores
6. Costes de llamadas
 1. Pasos de la última llamada
 2. Pasos de todas las llamadas
 3. Ajustes de costes de llamadas
7. Contador de datos de GPRS
 1. Datos enviados en la última sesión
 2. Datos recibidos en la última sesión
 3. Todos los datos enviados
 4. Todos los datos recibidos
 5. Poner los contadores a cero
8. Temporizador de conexión de GPRS
 1. Duración de la última sesión
 2. Duración de todas sesiones
 3. Poner los temporizadores a cero

3. Guía



1. Buscar
2. Añadir contacto
3. Borrar
4. Copiar
5. Ajustes
 1. Memoria en uso
 2. Vista de la guía
 3. Estado de la memoria
6. Marcación rápida
7. Números info¹
8. Números servicio¹
9. Números propios²
10. Grupos llamantes²

4. Modos



1. Normal
 1. Activar
 2. Personalizar
 - 3.. Temporizar
2. Silencio (Normal moduan ateratzen den azpimenu berbera)

1. SIM txartelak onartzen badu bakarrik bistaratuko da. Horien erabilgarritasunari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.

2. Informazio-zenbakiak, zerbitzu-zenbakiak edo biak onartzen ez badira, menuko aukera honen zenbakia aldatu egingo da.

3. Un "bip" (Normal moduan ateratzen den azpimenu berbera)
4. Muy alto (Normal moduan ateratzen den azpimenu berbera)
5. Estilo propio 1 (Normal moduan ateratzen den azpimenu berbera)
6. Estilo propio 2 (Normal moduan ateratzen den azpimenu berbera)

5. Ajustes



1. Accesos directos personales
 1. Tecla de selección derecha
 2. Seleccionar opciones de Ir a
 3. Organizar funciones de Ir a
2. Salvapantallas
 1. Activar
 2. Desactivar
 3. Seleccione salvap.
 4. Tiempo de espera
3. Ajustes de hora y fecha
 1. Reloj
 2. Fecha
 3. Actualización auto de fecha y hora

4. Ajustes de llamada
 1. Desvío de llamadas
 2. Cualquier tecla responde
 3. Rellamada automática
 4. Marcación rápida
 5. Llamada en espera
 6. Resumen tras la llamada
 7. Envío de identidad del llamante
 8. Línea para llamadas salientes¹
5. Ajustes del teléfono
 1. Idioma del teléfono
 2. Bloqueo auto del teclado
 3. Presentación de info de célula
 4. Saludo inicial
 5. Selección de red
 6. Confirmar acciones de servicio de SIM
 7. Activación de texto de ayuda
 8. Tono inicial
6. Ajustes de la pantalla
 1. Papel tapiz
 2. Esquemas de color
 3. Logotipo del operador
 4. Brillo de la pantalla
7. Ajustes de tonos

1. Horien erabilgarritasunari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.

1. Aviso de llamada entrante
2. Señal de llamada
3. Volumen de señal de llamada
4. Aviso por vibración
5. Tono de aviso para mensajes
6. Sonido del teclado
7. Tonos de aviso
8. Aviso luminoso rítmico
9. Aviso para
8. Ajustes de accesorios¹
 1. ML portátil
 2. Manos libres
 3. Adapt. audífono
 4. Carcasa de juegos
9. Ajustes de seguridad
 1. Petición del código PIN
 2. Servicio de restricción de llamadas
 3. Marcación fija
 4. Grupo cerrado de usuarios
 5. Nivel de seguridad
 6. Códigos de acceso
10. Restablecer los valores iniciales

6. Alarma

1. Hora de alarma
2. Señal de alarma



7. Galería

1. Ver carpetas
 1. Imágenes
 2. Tonos
2. Añadir carpeta
3. Borrar carpeta
4. Renombr. carpeta
5. Descargas Galería



8. Agenda

1. Notas del día
2. Crear una nota
3. Ir a fecha
4. Ajustes



9. Juegos

1. Seleccionar juego
2. Descargas juegos
3. Memoria



1. Telefonoa ML eramangarri batera, esku libreko unitatera, jokoan karkasara edo telefonorako audiofono-egokigailu bateragarriara konektatuta badago, edo hala egon bada, bakarrik aterako da menu hau.

4. Ajustes
 1. Sonidos de los juegos
 2. Iluminación de los juegos
 3. Vibración

10.Aplicaciones

1. Seleccionar aplic.
2. Descargas aplics.
3. Memoria



11.Extras

1. Calculadora
2. Temporizador de cuenta atrás
3. Cronómetro



12.Servicios

1. Inicio
2. Favoritos



3. Enlaces descargas

1. Descargas tonos
2. Descargas imágs.
3. Descargas juegos
4. Descargas aplics.

4. Buz. entrada serv.

5. Ajustes

1. Ajustes de conexión
2. Ajustes de aspecto
3. Ajustes de seguridad
4. Ajustes de buzón entrada de servic.
6. Ir a dirección
7. Borrar la caché

13.Ir a



14.Servicios SIM¹



1. SIM txartelak onartzen badu bakarrik agertzen da funtzio hau. Izena eta edukia SIM txartelaren arabera dira.

■ Mezuak (1. menua)



Testu-mezuak, multimedia mezuak eta mezu elektronikoak irakurri, idatzi, bidali eta gorde ditzakezu. Mezu guztiak karpetatan ordenatzen dira.

Testu-mezuak irudiekin eta mezu elektronikoekin bidaltzeko, aurretik mezuen zentroaren zenbakia gorde beharko duzu. Ikus *Mezuen doikuntzak*, 68. orrialdean.

Testu-mezuak

SMS bidez (Short Message Service), telefonoak zenbait testu-mezu arruntekin osatutako kateatutako mezuak bidal eta jaso ditzake (sare-zerbitzuarekin). Fakturazioa kateatutako mezua osatzeko behar diren mezu-kopuruan oinarri daiteke. Karaktere bereziak (Unicode) erabiliz gero, litekeena da mezua osatzeko bestela baino atal gehiago behar izatea. Kontuan izan, litekeena dela testu prediktiboak sartzeko Unicode karaktereak erabiltzea.

Aukera honek testu-mezuak irudiekin bidaltzeko eta jasotzeko aukera ere ematen du.



Oharra: Iruidun mezuak bidaltzeko funtzioa sare-operadoreak edo zerbitzu-hornitzaileak ematen badu bakarrik erabil daiteke. Mezuak irudiekin bidaltzeko funtzioa eskaintzen duten telefonoek bakarrik jaso eta bistara ditzakete mezuak irudiekin.

Mezuak idaztea eta bidaltzea

1. Sakatu **Menú**, aukeratu *Mensajes*, *Mensajes de texto* eta, ondoren, *Crear mensaje*.



Iradokizuna: Crear mensaje menua bizkor irekitzeko, sakatu ... pantaila zuri dagoela.

2. Idatzi mezu bat. Ikus *Testua idaztea*, 39. orrialdean. Mezuaren karaktere-kopurua eta konposatutako mezuen zati-kopurua pantailaren goiko eskuineko aldean agertzen dira, adibidez, 120/2.

- Testu-txantiloia bat sartzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Usar plantilla*. Aukeratu sartu nahi duzun txantiloia.
- Irudi bat sartzeko, sakatu **Opciones**. Aukeratu *Insertar gráfico* eta aukeratu irudi bat ikusteko. Sakatu *Insertar* irudia mezuan sartzeko. Mezuaren goiburukoan  adierazlea agertzen bada, horrek esan nahi du irudia erantsi dela. Irudia duen mezuan sar dezakezun karaktere-kopurua irudi horren tamainaren arabera da. Irudia duen mezu bakoitzak zenbait testu-mezu ditu. Beraz, mezu bat irudiekin bidaltzea testu-mezu bat bidaltzea baino garestiagoa izan daiteke.

Mezua bidali aurretik testua eta irudia batera ikusteko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Vista previa*.

- Aurpegiera bat sartzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Insert. emoticono*. Aukeratu sartu nahi duzun aurpegiera.

- Izen bat sartzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Insertar contacto*. Bilatu izen bat *Aurkibidean* eta aukeratu sartu nahi duzun izena.
- Zenbaki bat sartzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Insertar número*. Sartu izena edo bilatu *Aurkibidean*.

3. Mezua bidaltzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Enviar*.

4. Sartu hartzailearen telefono-zenbakia edo bilatu aurkibidean.

Sakatu **Aceptar** mezua bidaltzeko.

Copyright-en babesak irudiak, dei-seinaleak eta beste eduki-mota batzuk kopiazea, aldatzea, transferitzea edo berriro bidaltzea ekidin dezake.



Oharra: SMS sare-zerbitzuaren bidez mezuak bidaltzean, baliteke telefonoan *Mensaje enviado* testua agertzea. Horrek esan nahi du telefonoak mezua bidali duela telefonoan programatutako mezu-zentroaren zenbakira. Ez du esan nahi hartzaileak mezua jaso duenik. SMS zerbitzuei buruzko informazio xeheagoa nahi baduzu, kontsultatu zure zerbitzu-hornitzaileari.

Mezuak bidaltzeko aukerak

Mezua idatzitakoan, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Opciones de envío*.

- Mezu bat zenbait hartzaileri bidaltzeko, aukeratu *Enviar a varios*. Mezua zuk nahi duzun hartzaile guztiei bidali eta gero, sakatu **Hecho**.
- Aurrez definitutako banaketa-zerrenda batera mezu bat bidaltzeko, aukeratu *Enviar a lista*. Mezua hartzaileari bidaltzean, telefonoak garapena bistaratzen du bidaltzeko dauden mezu-kopuruaren bidez.

Banaketa-zerrendak definitu eta editatzeko, ikus Banaketa-zerrenda, 59. orrialdean.

- Mezu bat mezu-modua erabilita bidaltzeko, aukeratu lehenengo *Modo de envío* eta, ondoren, nahi duzu mezu-modua.

Mezu-modu bat definitzeko, ikus Mezuen doikuntzak, 68. orrialdean.

Mezu elektronikoak idaztea eta bidaltzea SMS bidez

Mezu elektronikoak SMS bidez bidaltzeko aukera izan aurretik, mezu elektronikoak bidaltzeko aukerak gorde beharko dituzu. Ikus Mezuen doikuntzak, 68. orrialdean. Posta elektronikoaren zerbitzuaren erabilgarritasunari buruzko informazioa eskuratzeko edo zerbitzu horretan harpidetzeko, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin. Helbide elektronikoa aurkibidean jasotzeko, ikus Kontaktu bati lotutako hainbat zenbaki eta testu-elementu memorian sartzea, 76. orrialdean.

1. Sakatu *Menú*, aukeratu *Mensajes*, *Mensajes de texto* eta, ondoren, *Crear correo SMC*.
2. Sartu hartzailearen helbide elektronikoa edo bilatu aurkibidean, eta sakatu *Aceptar*. @ karakterea sartzeko, sakatu *+** eta aukeratu karakterea zerrendan.
3. Nahi izanez gero, mezuaren gaia idatz dezakezu, eta sakatu *Aceptar*.
4. Idatzi mezu elektronikoa. Ikus *Testua idaztea* 39. orrialdean. Gehienez sar dezakezun karaktere-kopurua pantailaren goiko eskuinaldean agertzen da. Mezu elektronikoaren helbidea eta gaia karaktere-kopuru osoan sartzen dira.

- Testu-txantiloia bat sartzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Usar plantilla*. Aukeratu sartu nahi duzun txantiloia.
- Aurpegiera bat sartzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Insert. emoticono*. Aukeratu sartu nahi duzun aurpegiera.
- Izen bat sartzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Insertar contacto*. Bilatu izen bat *Aurkibidean* eta aukeratu sartu nahi duzun izena.
- Zenbaki bat sartzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Insertar número*. Sartu izena edo bilatu *Aurkibidean*.

Ezin da irudirik sartu.

5. Mezu elektronikoa bat bidaltzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Enviar correo*. Mezuak bidaltzeko doikuntzak gorde ez badituzu, telefonoak posta elektronikoaren zerbitzari-zenbakia eskatuko dizu.

Sakatu **Aceptar** mezua bidaltzeko.



Oharra: SMS sare-zerbitzuaren bidez mezu elektronikoa bat bidaltzen duzunean, baliteke telefonoan *Mensaje enviado* testua agertzea. Horrek esan nahi du telefonoak mezu elektronikoa hori dagokion zerbitzarira bidali duela. Ez du esan nahi hartzaileak mezua jaso duenik. Posta elektronikoaren zerbitzuei buruzko informazio xeheagoa nahi baduzu, kontsultatu zure zerbitzu-hornitzaileari.

Mezuak edo mezu elektronikoak irakurtzea eta haiei erantzutea SMS bidez

Testu-mezu bat edo mezu elektroniko bat jasotzen duzunean, pantailan  adierazlea, jasotako mezu berrien kopurua eta *Mensajes recibidos* testua bistaratzen dira.

Jasotako mezuak automatikoki jasotzen dira memoria partekatuan. Ikus *Memoria partekatua*, 18. orrialdean.

Memoria beteta dagoenean, pantailako  ikonoa keinuka hasiko da. Mezu berriak jaso ahal izateko, mezu zaharretakoren batzuk ezabatu beharko dituzu.

1. Sakatu *Mostrar* mezua ikusteko edo *Salir* geroago ikusteko.

Mezua geroago irakurtzea:

Sakatu *Menú*, aukeratu *Mensajes*, *Mensajes de texto* eta, ondoren, *Buzón de entrada*.

2. Hainbat mezu jaso badira, aukeratu irakurri nahi duzun mezua. Irakurri gabeko testu-mezuak  ikono aurrean dutela markatzen dira.
3. Mezua irakurtzen edo ikusten duzun bitartean, sakatu *Opciones*.

Besteak beste, mezua ezabatzeko, berriro bidaltzeko, testu-mezu eta mezu elektroniko gisa editatzeko, lekuz aldatzeko eta irakurtzen ari zaren mezuari beste izen bat jartzeko aukerak dituzu.

Aukeratu *Copiar a la agenda* mezuaren hasierako testua agendan ohar-abisu gisa kopiaatzeko.

Aukeratu *Detalles mensaje* bidaltzailearen izena eta telefono-zenbakia ikusteko, erabilitako mezu-zentroa zein den jakiteko eta zein egun eta ordutan jaso den ikusteko.

Aukeratu *Usar detalle* uneko mezuko web orrietatik mezu elektronikoak eta helbideak ateratzeko.

Irudia duen mezu bat irakurtzean, aukeratu *Guardar gráfico* irudia *Plantillas* karpetan sartzeko.

4. Aukeratu *Responder* mezuari erantzuteko. Aukeratu *Texto original* erantzunean jatorrizko mezua sartzeko, aukeratu erantzun estandar bat erantzunean sartzeko edo aukeratu *Pantalla vacía*.

Mezu elektroniko bat bada, lehenengo berretsi edo editatu helbidea eta mezuaren gaia. Idatzi erantzuteko mezua.

5. Sakatu *Opciones*, aukeratu *Enviar* eta sakatu *Aceptar* mezua pantailan agertzen den zenbakira bidaltzeko.

Sarrerako eta irteerako karpetak

Telefonoak jasotako testu-mezuak jasotzen ditu *Buzón de entrada* karpetan, eta bidalitakoak *Mensajes de texto* azpimenuko *Elementos enviados* karpetan sartzen ditu.

Geroago bidali nahi dituzun testu-mezuak karpeta hauetan jaso ditzakezu: *Archivo*, *Carpeta propia* edo *Plantillas*.

Txantiloiak

Telefonoan testu-txantiloiak –  ikurra dutenak – eta irudi-txantiloiak –  ikurra dutenak – ditu.

Txantiloien zerrendan sartzeko, sakatu *Menú* eta aukeratu *Mensajes*, *Mensajes de texto* edo *Plantillas*.

Artxibo-karpetak eta nire karpetak

Zure mezuak antolatzeko, horietako batzuk *Archivo* karpetan sar ditzakezu edo karpeta berriak sortu horietan mezuak sartzeko.

Mezu bat irakurtzen duzun bitartean, sakatu **Opciones**. Aukeratu *Mover*, joan mezua eraman nahi duzun karpetaraino eta sakatu **Aceptar**. Karpeta bat gehitzeko edo ezabatzeko, sakatu **Menú**, aukeratu *Mensajes*, *Mensajes de texto* eta *Carpetas propias*.

- Karpeta bat gehitzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Añadir carpeta*.
- Karpeta bat ezabatzeko, joan ezabatu nahi duzun karpetaraino, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Borrar carpeta*.

Banaketa-zerrendak

Hartzaile-talde jakin bati maiz bidali behar badizkiozu mezuak, hartzaile horiek dituen banaketa-zerrenda bat egin dezakezu eta hori erabili mezua bidali nahi diezuenean. Gehienez, 20 hartzaile dituzten 7 banaketa-zerrenda defini ditzakezu.



Oharra: Banaketa-zerrenda bat sortzean, aurkibidean jasotako kontaktuak erabiliko dira. SIM txartelean jasotako kontaktuak telefonoaren memorian kopia daitezke. Ikus *Kontaktuak kopiatzea*, 79. orrialdean.

Banaketa-zerrendak ikusi eta editatzeko, sakatu **Menú**, aukeratu *Mensajes*, *Mensajes de texto* eta *Listas de distribución*. Sakatu **Opciones** banaketa-zerrenda bat editatzeko aukera hauek ikusteko:

- *Ver lista*, aukeratutako banaketa–zerrendako izenak ikusteko.

Sakatu **Opciones**, banaketa–zerrenda bateko edukia editatzeko:

- *Añadir contacto*, zerrendan izen bat gehiago eransteko.
- *Ver detalles*, aukeratutako izenaren xehetasunak ikusteko.
- *Borrar contacto*, aukeratutako izena zerrendatik ezabatzeke.
- *Añadir lista*, banaketa–zerrenda berri bat eransteko.
- *Renombrar lista*, aukeratutako banaketa–zerrendaren izena aldatzeko.
- *Vaciar lista*, aukeratutako banaketa–zerrendako izen guztiak ezabatzeke.
- *Borrar lista*, aukeratutako banaketa–zerrenda ezabatzeke.

Mezu bat ezin zaienean bidali hartzaile bati edo gehiagori, *Listas distribución* zerrendako *No entregado* atalean jasoko da. Bidali gabeko mezuren bat badago bakarrik bistaratuko da aukera hori. Aukeratu *No entregado* eta sakatu **Opciones** entregatu gabeko mezuak kudeatzeko aukera hauetara sartzeko:

- *Reenviar a lista*, jaso ez duten hartzaileei mezua berriro bidaltzeko.
- *Ver lista*, mezua jaso ez duten hartzaileen zerrenda ikusteko.
- *Borrar lista*, mezua jaso ez duten hartzaileen zerrenda ezabatzeke.
- *Ver mensaje*, entregatu ez den mezua ikusteko.

Mezu-kontagailua

Mezu-kontagailuak bidalitako eta jasotako testu-mezuei buruzko informazio orokorra ematen dizu.

Kontagailua ikusteko, sakatu **Menú**, aukeratu **Mensajes**, **Mensajes de texto**, **Contad. mensajes** eta **Mensajes enviados** edo **Mensajes recibidos**.

Kontagailuak zeroan jartzeko, sakatu **Borrar los contadores**.

Multimedia mezuak



Oharra: Sare-operadoreak edo zerbitzu-hornitzaileak ematen badu bakarrik erabil daiteke funtzio hau. Multimedia-mezuak bidaltzeko funtzioa eskaintzen duten telefonoek bakarrik jaso eta bistara ditzakete multimedia-mezuak.

Multimedia-mezu batek testua, irudiak eta soinua izan ditzake. Telefonoak gehienez 45 kB-eko tamainako multimedia mezuak onartzen ditu. Tamaina maximoa gainditzen badu, baliteke telefonoak mezua jasotzeko eta bidaltzeko aukerarik ez izatea. Sarearen arabera, multimedia mezua ikusteko aukera emango dizun Interneteko helbidea duten testu-mezuak ere jaso ditzakezu.

Mezuak irudirik badu, telefonoak murriztu egingo du bistaratzeko eremuan sartu ahal izateko.



Oharra: Permitir recepción de multimedia aukera **Sí** edo **En red propia** gisa definituta badago, baliteke operadoreak edo zerbitzu-hornitzaileak jasotako mezu bakoitzeko kobratzea.

Multimedia-meziek formatu hauek onartzen dituzte:

- Irudia: JPEG, GIF, PNG eta BMP.

- Soinuak: SP-MIDI dei-seinaleak (Scalable Polyphonic MIDI) eta monofonikoak.

Telefonoak onartzen ez dituen elementuak dituen mezua jaso bada, baliteke artxiboaren izenaren eta mezuaeren ordezt *Formato de objeto no admitido* testua agertzea.

Kontuan izan ez duzula multimedia-mezurik jasotzerik izango hitz egiten edo jokoren batekin jolasean ari bazara edota beste Java aplikazioaren bat gauzatzen ari bada; ez eta GSM datuen bidez zerbitzu-konexioa aktibo duzunean ere (Ikus *Zerbitzu-doikuntzak eskuz sartzea*, 117. orrialdean). Multimedia-mezuak entregatzeak hainbat arrazoiengatik huts egin dezakeenez, ez fidatu horretaz bakarrik funtsezko komunikazioetarako.

Multimedia-mezuak idaztea eta bidaltzea

Multimedia-mezuak bidaltzeko behar diren aukerak definitzeko, ikus *Multimedia-mezuen doikuntzak*, 69. orrialdean. Multimedia-mezuen zerbitzuaren erabilgarritasunari buruzko informazioa jaso nahi baduzu edo zerbitzu horretan harpidetu nahi baduzu, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzaileekin.

1. Sakatu Menú, aukeratu Mensajes, Mensajes multim. eta, ondoren, Crear mensaje.
2. Idatzi mezu bat. Ikus *Testua idaztea*, 39. orrialdean.
 - Irudi bat edo soinu-klip bat sartzeko, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Insertar imagen* edo *Insert. clip sonido*, hurrenez hurren. *Galería* aukeran eskura dituzun karpeten zerrenda bistaratzen da. Ireki karpeta bat, joan nahi duzun irudiraino edo soinuraino, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Insertar*.

Mezuaren goiburukoan  edo  adierazlea agertzen bada, horrek esan nahi du irudia edo soinua erantsi dela.

Copyright-en babesak irudiak, dei-seinaleak eta beste eduki-mota batzuk kopiazea, aldatzea, transferitzea edo berriro bidaltzea ekidin dezake.

- Aurkibidean izena sartzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Más opciones* eta *Insertar contacto*. Joan nahi duzun izeneraino, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Insertar contacto*.
 - Zenbakia sartzeko, sakatu **Opciones**, aukeratu *Más Opciones* eta *Insertar número*. Sartu zenbakia edo bilatu aurkibidean eta sakatu **Aceptar**.
1. Mezua bidali aurretik ikusteko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Vista previa*.
 2. Mezua bidaltzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Enviar a número* (edo *Enviar a correo* edo *Enviar a varios*).
 3. Sartu hartzailearen telefono-zenbakia (edo helbide elektronikoa) edo bilatu aurkibidean. Sakatu **Aceptar** eta mezua *Buzón de salida* karpetara mugituko da bidaltzeko.

Multimedia-mezuak bidaltzeko denbora gehiago behar da testu-mezuak bidaltzeko baino. Mezua bidaltzen den bitartean,  adierazlea keinuka bistaratzen da, eta telefonoaren beste funtzio batzuk erabiltzeko aukera izango duzu. Bidalketa moztu egiten bada, telefonoa behin eta berriro saiatuko da bidaltzen. Huts egiten badu, mezua *Buzón de salida* karpetan egongo da eta geroago saia zaitezke bidaltzen.

Bidalitako mezuak *Elemen. enviados* karpetan sartuko dira, *Guardar mensajes enviados* aukera *Sí* gisa definituta badago. Ikus Multimedia-mezuen doikuntzak 69. orrialdean.

Multimedia-mezuak irakurtzea eta horiei erantzutea

Telefonoak multimedia-mezu bat jasotzen duenean,  adierazlea keinuka agertzen da. Mezua jaso denean,  adierazlea eta *Mensaje multimedia recibido* testua bistaratzen dira.

Multimedia-mezuen memoria beteta dagoenean,  ikonoa keinuka hasiko da.

Ikus Multimedia mezuen memoria beteta, 65. orrialdean.

1. Sakatu **Mostrar** mezua ikusteko edo **Salir** geroago ikusteko.

Mezua geroago irakurtzea: Sakatu **Menú** eta aukeratu *Mensajes*, *Mensajes multim.* eta *Buzón de entrada*.

2. Mugitu pantailan zehar mezua ikusteko. Sakatu **Opciones** eta eskura dituzun aukera hauetako batzuk bistaratuko dira.

- *Borrar mensaje*, gordetako mezua ezabatzeko.
- *Responder* edo *Respond. a todos*, mezuari erantzuteko. Erantzuteko mezua bidaltzeko, ikus Multimedia-mezuak idaztea eta bidaltzea, 62. orrialdean.
- *Reenviar a nº* edo *Reenviar a correo* edo *Enviar a varios* mezua berriro bidaltzeko.
- *Editar*, mezu bat editatzeko. Zuk sortutako mezuak bakarrik editatu ahal izango dituzu. Ikus Multimedia mezuak idaztea eta bidaltzea, 62. orrialdean.
- *Detalles mensaje*, mezuaren gaia, tamaina eta mezu-mota ikusteko.

- *Detalles*, erantsitako irudien edo soinuen xehetasunak ikusteko.
- *Reproducir*, mezuko soinua entzuteko.
- *Guardar clip sonido*, soinuak *Galería* aukeran gordetzeko.
- *Guardar imagen*, irudia *Galería* aukeran jasotzeko.

Ikus, halaber, artxiboaren aukerak *Galería* aukeran. Ikus *Galería (7. menua)* 100. orrialdean.

Sarrerako postontzia, Irteerako postontzia, Gordetako elementuak eta Bidalitako elementuak karpetak

Mensajes multim. azpimenuko *Buzón de entrada* karpetara iritsitako *multimedia mezuak* jasotzen ditu telefonoak.

Oraindik bidali ez diren multimedia-mezuak *Mensajes multim.* azpimenuko *Buzón de salida* karpetara pasatzen dira.

Geroago bidali nahi dituzun multimedia mezuak *Mensajes multim.* azpimenuaren *Elem. guardados* karpetan gorde daitezke.

Bidalitako multimedia-mezuak *Mensajes multim.* azpimenuaren *Elemen. enviados* karpetan gordetzen dira.

Multimedia-mezuen memoria beteta

Jasotako mezuak automatikoki jasotzen dira memoria partekatuan. Ikus Memoria partekatua, 18. orrialdean.

Multimedia-mezu bat sartzen ari denean eta mezuen memoria beteta dagoenean,  adierazlea keinuka hasten da eta *Mem. multimedia llena* testua bistaratzen da. *Vea el mens. espera*. Zain dagoen mezua ikusteko, sakatu *Mostrar*. Mezua gordetzeko, sakatu *Opciones*, aukeratu *Guardar mensaje* eta ezabatu mezu zaharrak; horretarako, lehenengo, aukeratu karpeta eta, ondoren, ezabatu nahi duzun mezua.

Zain dagoen mezua baztertzeko, sakatu *Salir* eta *Sí*. No sakatzen baduzu, mezua ikusi ahal izango duzu.

Mezuak ezabatzea

1. Testu-mezuak ezabatzeko, sakatu *Menú* eta aukeratu *Mensajes*, *Mensajes de texto* eta *Borrar mensajes*.

Multimedia-mezuak ezabatzeko, sakatu *Menú* eta aukeratu *Mensajes*, *Mensajes multím.* eta *Borrar mensajes*.

2. Karpeta bateko mezu guztiak ezabatu nahi izanez gero, aukeratu ezabatu nahi dituzun mezuak dauden karpeta eta sakatu *Aceptar*. Karpetan oraindik irakurri ez dituzun mezuak baldin badaude, telefonoak horiek ere ezabatu nahi dituzun galdetuko dizu.

Karpeta guztietako mezu guztiak ezabatzeko, aukeratu *Todos mensajes* eta *¿Borrar todos los mensajes de todas las carpetas?* mezua agertzen denean, sakatu *Aceptar*. Karpetan oraindik irakurri ez dituzun mezuak baldin badaude, telefonoak horiek ere ezabatu nahi dituzun galdetuko dizu.

Ahots-mezuak

Ahots-postontzia sare-zerbitzu bat da eta baliteke aldez aurretik harpidetu behar izatea. Informazio gehiago izateko eta ahots-postontziko zure zenbakia jakiteko, kontsultatu zure zerbitzu-hornitzaileari.

Sakatu Menú, aukeratu *Mensajes* eta, jarraian, *Mensajes de voz*. Hautatu:

- *Escuchar los mensajes de voz, Número del buzón de voz*, menuan gordetako ahots-postontzira deitzeko.

Telefono-linea bakoitzak bere ahots-postontziaren zenbakia izan dezake. Ikus Itreten ari den deiarantzako linea, 89. orrialdean.

- *Número del buzón de voz*, zure ahots-postontziaren zenbakia sartzeko, bistaratzeko edo editatzeko, eta sakatu **Aceptar** gordetzeko.

Sareak onartzen badu,  ikonoak adieraziko du ahots-mezuak jaso direla. Sakatu *Escuchar* ahots-postontzira deitzeko.



Iradokizuna: Pantaila zuri dagoela, sakatu luze 1  ahots-postontzira deitzeko.

Informazio-mezuak

Informazio-mezen sare-zerbitzuarekin, hainbat gairi buruzko mezuak jaso ditzakezu, zure zerbitzu-hornitzailearen eskutik, hala nola, egoera meteorologikoari edo zirkulazioari buruzkoak. Erabilgarri dauden gaiei eta gairik garrantzitsuenen zenbakiei buruzko informazioa lortzeko, jar zaitez harremanetan zure operadorearekin.

Conexión GPRS aukera *Siempre en línea* gisa definituta badago, ezingo duzu informazio-mezurik jaso. Kasu horretan, definitu *Conexión GPRS* aukera Cuando necesario gisa.

Ikus *Aukeratutako* datu-garraiatzailea GPRS denean dauden doikuntzak, 119. orrialdean.

Mezuen doikuntzak

Mezuen doikuntzek mezuen bidalketari, harrerari edo bistaratzeari eragiten diote.

Testu-mezuen eta mezu elektronikoen doikuntzak

1. Sakatu **Menú**, aukeratu *Mensajes*, *Ajustes mensajes*, *Mensajes de texto* eta *Modo de envío*.
2. SIM txartelak mezu-moduen talde bat baino gehiago onartzen baditu, aukeratu aldatu nahi duzun taldea.
 - Aukeratu *Número del centro de mensajes* testu-mezuak bidaltzeko behar duzun mezu-zentroaren telefono-zenbakia gordetzeko. Zenbaki hori zure zerbitzu-hornitzaileak emango dizu.
 - Aukeratu *Mensajes enviados como*, mezu-mota aukeratzeko: *Texto* edo *Correo*, *Buscapersonas* eta *Fax*.
 - Aukeratu *Validez de los mensajes*, sareak mezuak bidaltzen zenbat denboran saiatu behar duen definitzeko.
 - *Texto* motako mezuetarako, aukeratu *Nº de destinatario predeterminado* modu horretara bidaltzeko aurrez definitutako zenbakia gordetzeko.

Correo motako mezuetarako, aukeratu *Servidor de correo* posta elektronikoen zerbitzari-zenbakia gordetzeko.

- Aukeratu *Informes de entrega*, sareari testu-mezuen entreegi buruzko txostenak bidali ditzala eskatzeko (sare-zerbitzua).
- Aukeratu *Usar GPRS*, GRPS SMS datu-garraiatazale aurrez definitu gisa definitzeko.
- Aukeratu *Responder vía mismo centro*, mezuaren hartzaileak mezu-zentroaren bidez erantzuteko aukera izateko (sare-zerbitzua).
- Aukeratu *Renombrar modo de envío*, aukeratutako mezu-moduaren izena aldatzeko. Mezu-moduen taldeak zure SIM txartelak talde gehiago onartzen baditu bakarrik bistaratzen dira.

Gainidazketaren doikuntzak

Testu-mezuaren memoria beteta dagoenean, telefonoak ezin du testu-mezu berririk jaso edo bidali. Hala ere, *Buzón de entrada* eta *Elemen. enviados* karpitetako mezu zaharren gainean automatikoki mezu berriak sartzeko moduan defini dezakezu telefonoa.

Sakatu *Menú*, eta aukeratu *Mensajes*, *Ajustes mensajes*, *Mensajes de texto* eta *Sobreescritura en buzón de entrada* edo *Sobreescritura en Elemen. enviados*. Aukeratu *Permitida* telefonoa bereziki konfiguratzeko *Buzón de entrada* edo *Elemen. enviados* karpitetako mezu zaharrak berriekin ordezkari ditzan, hurrenez hurren.

Multimedia-mezuaren doikuntzak

Sakatu *Menú*, aukeratu *Mensajes*, *Ajustes mensajes* eta, ondoren, *Mensajes multim.*. Hautatu:

- *Guardar mensajes enviados.* Aukeratu *Sí*, multimedia-mezuak *Elemen. enviados* karpetan jasotzeko moduan telefonoa definitzeko. *No* aukeratzen baduzu, bidalitako mezuak ez dira gordeko.
- *Informes de entrega,* mezuak entregatu izanaren txostenak bidaltzeko eskatzeko sareari (sare-zerbitzua).
- *Permitir recepción de multimedia.* Aukeratu *No*, *Sí* edo *En red propia* multimedia zerbitzua erabiltzeko. *En red propia* aukeratzen baduzu, ezingo duzu multimedia mezurik jaso zure saretik kanpo.
- *Mensajes multimedia entrantes.* Aukeratu *Recuperar* jasotako multimedia-mezuak automatikoki berreskuratzeko moduan telefonoa konfiguratzeko, edo aukeratu *Rechazar* multimedia-mezurik jaso nahi ez baduzu.
- *Ajustes de conexión.* Definitu zerbitzu-konexioaren aukerak multimedia-mezuak berreskuratzeko. Aktibatu konexioko aukerak gordetzeko multzoa eta, ondoren, editatu. Zerbitzu-doikuntzak OTA mezu gisa jaso ditzakezu erabili nahi duzun zerbitzuak duen zerbitzu-hornitzailearen eskutik. Horri buruzko informazio gehiago lortzeko, galdetu zure zerbitzu-hornitzaileari. Ikus Telefonoa zerbitzuak erabiltzeko konfiguratzea, 116. orrialdean.
- *Permitir publicidad.* Publizitaterik hartu nahi duzun ala ez aukera dezakezu.

Letra-tipoaren tamaina doitzea

Mezuak irakurtzeko eta idazteko letra-tipoa aukeratzeko, sakatu **Menú**, aukeratu *Mensajes*, *Ajustes mensajes*, *Otros ajustes* eta *Tamaño de fuente*.

Zerbitzu-komandoak

Sakatu **Menú**, aukeratu *Mensajes* eta, ondoren, *Comandos servicio*. Sartu eta bidali zerbitzu-eskaerak (USSD komandoak izenez ere ezagutzen dira), esate baterako, zerbitzu-hornitzaileari sare-zerbitzurako komandoak aktibatzeko eskatu.

■ Deien erregistroa (2. menua)

Telefonoak galdutako, jasotako eta bidalitako deien telefono-zenbakiak erregistratzen ditu, bai eta zure deien gutxi gorabeherako iraupena eta kostua ere.



Telefonoak galdutako eta jasotako deiak erregistratzen ditu, baldin eta sareak funtzio horiek onartzen baditu, telefonoa pizturik badago eta sarearen zerbitzu-eremuaren barruan badago.

Opciones sakatzen baduzu *Llamadas perdidas*, *Llamadas recibidas* eta *Llamadas enviadas* menuetan, adibidez, deiaren data eta ordua ikusi ahal izango dituzu, zerrendako telefono-zenbakia editatu edo aldatu, zenbakia telefono-gidan gorde edo zenbakira mezu bat bidali.

Azken deien zerrenda

Sakatu Menú, aukeratu *Reg. Llamadas* eta, ondoren, aukeratu:

- *Llamadas perdidas*, deitzen saiatu diren azken hamar telefono-zenbakien zerrenda ikusteko (sare-zerbitzua). (Izenaren edo) telefono-zenbakiaren aurrean dagoen zenbakiak adierazten du pertsona hori zenbat aldiz saiatu den deitzen.



Iradokizuna: Galdutako deiak daudela adierazten duen oharra pantailan agertzen zaizunean, sakatu Lista telefono-zenbakien zerrendan sartzeko. Joan deia itzuli nahi diozun zenbakiraino eta sakatu ...

- *Llamadas recibidas*, onartutako azken hamar deien telefono-zenbakien zerrenda ikusteko (sare-zerbitzua).
- *Llamadas enviadas*, deitu dituzun edo deitzen saiatu zaren azken 20 telefono-zenbakien zerrenda ikusteko. Ikus, halaber, *Azken zenbakiak berriro markatzea*, 34. orrialdean.
- *Borrar listas de últimas Llamadas* azken deien zerrenda ezabatzeko. Adierazi azken deien zerrendako telefono-zenbaki guztiak ezabatu nahi dituzun edo galdutako, jasotako edo bidalitako deien zerrendako zenbakiak bakarrik ezabatu nahi dituzun. Eragiketa hau ezin da desegin.

Deien kontagailua



Oharra: Zerbitzu-hornitzailearen zerbitzuengatik eta deiengatik jasotako benetako faktura aldatu egin daiteke, sarearen ezaugarrien, fakturazio-biribiltzeen, zergen eta abarren arabera.

Sakatu *Menú*, aukeratu *Reg. llamadas* eta, ondoren, aukeratu:

- *Duración de la llamada*; jaso eta egin diren deiek gutxi gorabehera ordutan, minututan eta segundotan zenbat iraun duten ikusteko. Kontagailuak zeroan jartzeko, segurtasun-kodea behar da.

Telefono-linea bakoitzak bere kontagailua du, eta agertzen direnak aukeratutako linearenak izango dira. Ikus *Irteten ari den deia*rentzako linea, 89. orrialdean.

- *Costes de llamadas* (sare-zerbitzua). Aukeratu *Pasos de la última llamada* edo *Pasos de todas las llamadas*, azken deiaren kostua egiaztatzeko edo *Mostrar costes en* funtzioan espezifikatutako unitateetako dei guztien kostua egiaztatzeko.

Aukeratu *Ajustes de costes de llamadas* eta, ondoren, hautatu *Poner los contadores a cero* kontagailuak zeron jartzeko edo *Mostrar costes en* geratzen den elkarrizketa-denbora kontsumo-unitatetan *Pasos* edo moneta-unitatetan *Moneda* eman ditzan telefonoa konfiguratzeko. Kontsumo-unitateen prezioei buruzko informazioa eskuratzeko, jar zaitez harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Aukeratu *Límite de costes de llamadas*, deien zenbatekoa kontsumo- edo moneta-unitatetan nahi den adina mugatzeko. PIN2 kodea ezinbestekoa da deien kontsumoaren aukerak definitzeko.



Oharra: Karga-unitate edo moneta-karga gehiago geratzen ez direnean, telefonoan programatutako larrialdietarako deiak bakarrik egin daitezke (adibidez 112, 911 edo beste larrialdi-zenbaki ofizial bat).

- *Contador de datos de GPRS*, azken saioan bidalitako eta jasotako datu-kopurua eta guztira bidalitako eta jasotako datuak egiaztatzeko eta kontagailuak zeroan jartzeko. Kontagailuen unitatea byte-a da. Kontagailuak zeroan jartzeko, segurtasun-kodea behar da.
- *Temporizador de conexión de GPRS*, mugitu pantailan zehar GPRSrako azken konexioaren edo konexio guztien iraupena egiaztatzeko. Kontagailuak zeroan ere jar daitezke. Kontagailuak zeroan jartzeko, segurtasun-kodea behar da.

■ Aurkibidea (3. menua)

Izenak eta telefono-zenbakiak telefonoaren aurkibidean eta SIM txartelaren memorian gorde daitezke.



- Telefonoaren aurkibidean izenekin batera zenbakiak eta testu-oharrak gorde daitezke. Halaber, irudi bat gorde daiteke izen-kopuru jakin baterako. Gorde ahal izango dugun zenbaki-kopurua izenen luzeraren arabera da, eta telefono-zenbakien eta testu-elementuen kopuruaren eta luzeraren arabera.

Aurkibideak memoria partekatua ibiltzen du. Ikus *Memoria partekatua*, 18. orrialdean.

- Telefonoak onartzen dituen SIM txarteletan 250 izen eta telefono-zenbaki jaso daitezke. SIM txartelaren memorian sartutako izen eta zenbakiak ... ikonoaren bidez adierazten dira. 

Kontaktuetarako doikuntzak aukeratzea

Sakatu *Menú*, aukeratu *Guía* eta, ondoren, aukeratu *Ajustes*. Hautatu:

- *Memoria en uso*, zein aurkibide erabili nahi duzun aukeratzeko. *Teléfono y SIM*, bi aurkibideetako izenak eta zenbakiak erabiltzeko. Izenak eta zenbakiak telefonoaren aurkibidean gordetzen dira.
- *Vista de la guía*, aurkibideko izenak, zenbakiak eta irudiak zein eratara bistaratuko diren aukeratzeko.
- *Estado de la memoria*, aurkibideak memorian zein leku hartzen duen eta zenbat leku libre duen ikusteko.

Izenak eta telefono-zenbakiak gordetzea (kontaktua gehitzea)

Izenak eta telefono-zenbakiak erabiltzen ari garen memorian gordeko dira, ikus aurreko atala, *Kontaktuetarako doikuntzak* hautatzea.

1. Sakatu *Menú*, aukeratu *Guía* eta, ondoren, aukeratu *Añadir contacto*.
2. Sartu izena eta sakatu *Aceptar*. Ikus *Ohiko testuaren funtzioa* 41. orrialdean.
3. Sartu telefono-zenbakia eta sakatu *Aceptar*. Zenbakiak sartzeko, ikus *Dei bat egitea* atala 34. orrialdean.
4. Izena eta zenbakia gorde eta gero, sakatu *Hecho*.



Iradokizuna: Bizkor gordetzeko, pantaila zuri dagoela, idatzi zenbakia. Sakatu *Opciones* eta aukeratu *Guardar*. Idatzi izena, sakatu *Aceptar* eta *Hecho*.

Kontaktu bati lotutako zenbakiak eta testu-elementuak memorian sartzea

Hainbat telefono-zenbaki mota eta testu-elementu labur gorde daitezke telefonoaren aurkibidean.

Gordetako lehen zenbakia automatikoki definitzen da aurrez zehaztutako zenbaki gisa, eta zenbaki-motaren adierazlearen inguruan marko bat jarrita adierazten da, adibidez  Aurkibideko izen bat aukeratzen denean, adibidez dei bat egiteko, aurrez zehaztutako zenbakia erabiltzen da, baldin eta beste zenbaki bat aukeratzen ez bada.

1. Ziurtatu erabiltzen ari zaren memoria *Teléfono* edo *Teléfono y SIM* dela. Ikus Kontaktueterako doikuntzak aukeratzea, 75. orrialdean.
2. Izenen eta telefono-zenbakien zerrendan sartzeko, sakatu  edo  pantaila zuri dagoenean.
3. Mugitu zenbaki edo testu-elementu berria gehitu nahi diozun izeneraino eta sakatu *Detalles*.
4. Sakatu *Opciones* eta aukeratu *Añadir número* edo *Añadir detalle*. Izena SIM txartelaren memorian gordeta badago, telefono-aurkibidera joango da.
5. Aukeratu ondorengo zenbaki-motetako bat:  *General*,  *Móvil*,  *Domicilio*,  *Oficina* eta  *Fax*; edo testu-mota bat:  *Correo*,  *Dirección Web*,  *Dirección postal* eta  *Nota*.

Zenbaki- edo testu-mota aldatzeko, aukeratu *Cambiar tipo* aukeren zerrendan.

6. Sartu zenbakia edo testu-elementua eta sakatu *Aceptar* gordetzeko.
7. Sakatu *Atrás* eta, ondoren, *Salir* pantaila zurira itzultzeko.

Aurrez definitutako zenbakia aldatzea

Sakatu — edo — pantaila zuri dagoela, joan zaitez nahi duzun izeneraino eta sakatu *Detalles*. Joan zaitez aurrez definitu gisa definitu nahi duzun zenbakiraino. Sakatu *Opciones* eta aukeratu *Fijar como predet.*

Aurkibideko izen bati edo zenbaki bati irudi bat atxikitzea

Aurkibidean gordetako izen edo zenbaki bati irudi bat gehi diezaiokezu onartutako formaturen batean. Telefono-zenbaki jakin horretatik dei bat jasotzean bistaratzen da irudi hori.

Sakatu — pantaila zuri dagoela, joan irudia erantsi nahi diozun izeneraino (eta zenbakiraino) eta sakatu *Detalles*. Sakatu *Opciones* eta aukeratu *Añadir imagen*. Telefonoak *Galería* aukerako karpeten zerrenda irekitzen du. Joan nahi duzun irudiraino, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Guardar en la guía*. Kontaktuari irudiaren kopia bat erantsiko zaio.

Kontaktuak bilatzea

1. Sakatu *Menú*, aukeratu *Guía* eta, ondoren, aukeratu *Buscar*.
2. Bilatu nahi duzun izenaren lehen karaktereak idatz ditzakezu irekita duzun leihoan.

Sakatu **↵** eta **↵** zerrendako izenetan gora eta behera mugitzeko, **(eta)** kurtsorea irekita duzun leihoan mugitzeko.

3. Joan zaitez nahi duzun izeneraino eta sakatu *Detalles*. Mugitu pantailan aukeratutako izenaren xehetasunak ikusteko.



Iradokizuna: Izen bat eta telefono-zenbaki bat bizkor bilatzeko, sakatu **↵** edo **↵** pantaila hutsik dagoela. Sartu izenaren lehen letra edo letrak eta joan nahi duzun izeneraino.

Izena, zenbakia edo testu-elementua editatzea edo irudi bat aldatzea

Bilatu editatu nahi duzun izena (eta zenbakia) eta sakatu *Detalles*. Joan editatu nahi duzun izen, zenbaki edo testuraino eta sakatu *Opciones*. Aukeratu *Editar nombre*, *Editar número*, *Editar detalle* edo *Cambiar imagen*, eta editatu izena, zenbakia edo testua, edo aldatu irudia, eta sakatu *Aceptar*.

Kontaktuak ezabatzea

Sakatu *Menú*, eta aukeratu *Guía* eta *Borrar*.

- Kontaktuak banan-banan ezabatzeko, aukeratu *Uno por uno* eta joan ezabatu nahi duzun kontakturaino. Sakatu *Borrar* eta, ondoren, *Aceptar* berresteko.
- Kontaktuak denak batera ezabatzeko, aukeratu *Borrar todo* eta, ondoren, joan *Teléfono* edo *Tarjeta SIM* memorietara eta sakatu *Borrar*. Sakatu *Aceptar* eta berretsi segurtasun-kodearekin.

Zenbakiak, testu-elementuak edo irudiak ezabatzea

Sakatu  edo  pantaila zuri dagoela, joan zaitez nahi duzun izeneraino (eta zenbakiraino) eta sakatu *Detalles*. Joan ezabatu nahi duzun zenbakiraino edo testu-elementuraino, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Borrar número* edo *Borrar detalle*, hurrenez hurren. Izenak edo zenbakiak ezabatu nahi duzun irudi bat atxikita badu, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Borrar imagen*. Aurkibideko irudi bat ezabatzen baduzu, ez da *Galería* aukeran ezabatzen.

Kontaktuak kopiatzea

Telefonoaren aurkibidetik SIM txartelaren memoriara, eta alderantziz, kopia daitezke izenak eta telefono-zenbakiak.

1. Sakatu *Menú*, aukeratu *Guía* eta, ondoren, aukeratu *Copiar*.
2. Aukeratu nondik nora egin nahi duzun kopia, *Del teléfono a la tarjeta SIM* edo *De la tarjeta SIM al teléfono*.
3. Aukeratu *Uno por uno*, *Todas* edo *Números predet.*
 - *Uno por uno* aukeratzen baduzu, joan kopiatu nahi duzun izeneraino eta sakatu *Copiar*.

Telefonotik SIM txartelera kopiatzen baduzu, *Números predet.* testua agertuko da. Aurrez definitutako zenbakiak bakarrik kopiatuko dira.

4. Jatorrizko kontaktua bertan izaten segitu edo ezabatu nahi duzun aukeratzeko, hautatu *Conservar original* edo *Mover original*.
 - *Todas* edo *Números predet.* aukeratzen baduzu, sakatu *Aceptar*, pantailan *¿Comenzar a copiar?* Edo *¿Comenzar a mover?* agertzen denean.

Bisita-txartelak bidaltzea eta hartzea

Pertsona baten harremanetako informazioa bidali eta jaso daiteke, bisita-txartel bat izango balitz bezala OTA mezu gisa, sarea zerbitzu horrekin bateragarria bada.

Bisita-txartel bat jasotzea

Bisita-txartel bat jasotzen duzunean, sakatu **Mostrar**. Bisita-txartela telefonoaren aurkibidean gordetzeko, sakatu **Guardar**. Bisita-txartela gorde nahi ez baduzu, sakatu **Salir** eta aukeratu **Aceptar**.

Bisita-txartel bat bidaltzea

Bisita-txartela telefono bateragarri batera edo vCard estandarra onartzen duen beste gailu eramangarri batera bidal daiteke. Bilatu aurkibidean txartela bidali nahi diozun kontaktua, sakatu **Detalles**, **Opciones** eta aukeratu **Enviar tarj. visita** eta **Vía mensaje texto**.

Markaketa bizkorra

Markaketa bizkorreko tekla erabilia dei bat egiteko, ikus Telefono-zenbakia bizkor markatzea, 35. orrialdean.

Esleitu zenbaki bat markaketa bizkorreko tekla bati

Sakatu **Menú**, eta aukeratu **Guía**, **Marcación rápida** eta joan nahi duzun markaketa bizkorreko zenbakira.

Sakatu *Asignar*, sakatu *Buscar* eta aukeratu lehenik izena eta, ondoren, esleitu nahi diozun zenbakia. Tekla horrek telefono-zenbaki bat esleituta badu, sakatu *Opciones* esleitutako zenbakia ikusteko, aldatzeko edo ezabatzeko.

Informazio-zenbakiak

Zerbitzu-hornitzailearen informazio-zenbakietara dei dezakezu, SIM txartelean sartuta badaude. Sakatu *Menú*, aukeratu *Guía* eta, ondoren, aukeratu *Números info*. Joan informazio-zenbakiraino eta sakatu  deitzeko.

Zerbitzu-zenbakiak

Zerbitzu-hornitzailearen zerbitzu-zenbakietara dei dezakezu, SIM txartelean sartuta badaude. Sakatu *Menú*, aukeratu *Guía* eta, ondoren, aukeratu *Números servicio*. Joan zerbitzu-zenbakiraino eta sakatu  deitzeko.

Norberaren zenbakiak

SIM txartelari dagozkion telefono-zenbaki guztiak *Números propios* aukeran sartzen dira, txartelak hori onartzen badu. Zenbakiak ikusteko, sakatu *Menú*, aukeratu *Guía* eta *Números propios*. Joan zaitez nahi duzun izen edo zenbakiraino eta sakatu *Ver*.

Dei-egileen taldeak

Aurkibidean gordetako izenak eta telefono-zenbakiak dei-egileen taldeen arabera antola daitezke. Dei-egileen talde bateko telefono-zenbaki batetik dei bat jasotzean dei-seinale espezifiko bat jotzeko eta pantailan logotipo jakin bat agertzeko moduan konfigura daiteke telefonoa. Ikus ondoren aipatzen den informazioa. Aukeratutako dei-egileen talde bateko deiak jasotzean bakarrik jotzeko moduan konfiguratzeko telefonoa, ikus *Tonuen doikuntzak ataleko Aviso para*, 94. orrialdean.

Sakatu *Menú*, aukeratu *Guía* eta *Grupos llamantes* eta aukeratu nahi dugun dei-egileen taldea. Hautatu:

- *Nombre de grupo*, sartu dei-egile taldearen izen berria eta sakatu *Aceptar*.
- *Señal de llamada de grupo*, eta aukeratu seinalea taldearen deientzat. *Predeterminada* une horretan modu aktiborako aukeratutako dei-seinalea da.
- *Logotipo de grupo* eta aukeratu *Activar* telefonoa taldearen logotipoa bistaratzeko moduan konfiguratzeko, *Desactivar*, ez bistaratzeko, edo, bestela, *Ver*, logotipoa ikusteko.
- *Miembros del grupo*, dei-egileen taldean beste izen bat sartzeko, sakatu ° *Opciones* eta aukeratu *Añadir contacto*. Joan taldeari gehitu nahi diozun izeneraino eta sakatu *Añadir*.

Dei-egileen talde bateko izen bat ezabatzeko, joan ezabatu nahi duzun izen horretaraino, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Eliminar contacto*.

■ Moduak (4. menua)



Telefonoak hainbat aukera- edo modu-talde ditu, eta telefono-tonuak talde horien arabera pertsonaliza daitezke, egoeraren eta inguruaren arabera. Pertsonalizatu moduak zure gustura, eta, ondoren, erabili nahi duzun modua bakarrik aktibatu beharko duzu. Eskura dituzun moduak hauek dira: *Normal*, *Silencio*, *Un "bip"*, *Muy alto*, *Estilo propio 1* eta *Estilo propio 2*.

Sakatu *Menú* eta aukeratu *Modos*. Joan nahi duzun moduraino eta sakatu *Seleccion*.

- Nahi duzun modua aktibatzeko, aukeratu *Activar*.
- Modu hori denbora jakin batean bakarrik egon dadin aktibatuta (gehienez 24 ordukoa izan daiteke), aukeratu *Temporizar* eta aukeratu amaierako ordua. Modu horretarako finkatutako denbora amaitzen denean, berriro aktibatuko da inolako denbora-mugarik ez zuen aurreko modua.
- Modua pertsonalizatzeko, aukeratu *Personalizar*. Hautatu aldatu nahi duzun aukera eta egin aldaketak. Tonuen doikuntzak *Ajustes de tonos* menuan ere alda daitezke. Ikus Tonuen doikuntzak, 94. orrialdean.

Jokoetarako karkasako doikuntzak *Ajustes de accesorios* menuan ere alda daitezke, ikus Osagarrien doikuntzak, 96. orrialdean.

Gainera, moduen izenak alda daitezke: *Nombre de modo*. *Normal* moduari ezin zaio izena aldatu.



Iradokizuna: Pantaila zuri dagoela modua bizkor aldatzeko, sakatu pizteko ① tekla, joan desaktibatu nahi duzun moduraino eta sakatu *Seleccion*.

■ Doikuntzak (5. menua)



Zuzeneko sarbide pertsonalak

Zuzeneko sarbide pertsonalen zerrendari funtzio espezifiko batzuk gehi diezazkiokezu eta pantaila zuri dagoela horiek aktibatu, eskuineko aukeraketa-tekla sakatuta (*Ir a*) edo *Ir a* menura joanda. Ikus *Pantaila zuria* 21. orrialdean eta *Joan hona* (13. menua) 129. orrialdean.

Eskuineko aukeraketa-teklak izena eta zuzeneko sarbide pertsonaleko zerrendako funtzioak aukeratzeko, sakatu *Menú*, aukeratu *Ajustes* eta *Accesos directos personales*.

- Pantaila zuri dagoela agertzen den eskuineko aukeraketa-teklaren izena aukeratzeko, sakatu *Tecla de selección derecha*. Aukeratu *Ir a* edo *Guía*.
- Zuzeneko sarbide pertsonaleko zerrendari esleitu nahi dizkiozun funtzioak hautatzeko, aukeratu *Seleccionar opciones de Ir a* eta erabilgarri dauden funtzioen zerrenda agertuko da.

Joan nahi duzun funtzioraino eta sakatu *Selecc.* zuzeneko sarbideko zerrendara gehitzeko.

Zerrendako funtzio bat ezabatzeko, sakatu *Deselecc.*

- Zerrendako funtzioak berrantolatzeko, aukeratu *Organizar funciones de Ir a* eta, ondoren, nahi duzun funtzioa. Sakatu *Mover* eta aukeratu funtzioa zein lekutara mugitu nahi duzun.

Pantaila-babesa

Pantaila-babesa aktibatu egingo da telefonoa zuri dagoenean eta denbora jakin batean telefonoko funtzioak erabili ez direnean. Pantaila-babesa desaktibatzeke, sakatu edozein tekla. Sarearen estaldura-eremutik kanpo dagoenean ere desaktibatzen da pantaila-babesa.

Sakatu *Menú*, aukeratu *Ajustes* eta, ondoren, aukeratu *Salvapantallas*.

- *Seleccione salvap.* aukerarekin, *Galería* aukerako animazio edo irudi estatiko bat aukera dezakezu pantaila-babes gisa erabiltzeko.
- *Tiempo de espera* aukeran, hautatu zenbat denbora igarotzea nahi duzun pantaila-babesa aktibatu arte. *Otro* aukeran, zain egoteko denbora-tartea defini dezakezu, 5 segundo eta 10 minutu bitartean (minutuak:segundoak).
- Aukeratu *Activar* pantaila-babesa aktibatzeke.

Pantaila-babesaren doikuntzak finkatuta egon gabe ere, erloju digitala aktibatu egingo da energia aurrezteko, denbora-tarte jakin batean telefonoaren funtzioak erabili ez badira. Ikus *Energia aurrezte*a, 23. orrialdean.

Pantaila zuri dagoenean, pantaila-babesak ez ditu kontuan hartzen grafikoak eta pantaila-testuak.

Dataren eta orduaren doikuntzak

Erlojua

Sakatu *Menú*, aukeratu *Ajustes*, *Ajustes de hora y fecha* eta, ondoren, *Reloj*.

Aukeratu *Mostrar el reloj*, pantaila zuri dagoenean pantailaren goiko eskuineko aldean erlojua ikusteko. Aukeratu *Ajustar la hora*, ordua jartzeko eta *Formato de hora* 12 edo 24 orduko formatua aukeratzeko.

Besteak beste, *Mensajes*, *Reg. llamadas*, *Alarma*, *Modos temporizatuak*, *Agenda* eta *Salvapantallas* funtzioei eragiten die erlojuak.

Telefonotik bateria denbora luzez ateratzen bada, baliteke ordua berriro ere definitu behar izatea.

Data

Sakatu *Menú*, aukeratu *Ajustes*, *Ajustes de hora y fecha* eta, ondoren, *Reloj*.

Hautatu:

- *Mostrar fecha*, telefonoaren pantaila zuri dagoenean pantailan data bistaratzeko.
- *Ajustar la fecha*, data doitzeko.
- *Formato de fecha*, dataren formatua definitzeko.
- *Separador fecha*, aukeratutako dataren formatuan bereizlea aukeratzeko.

Data eta eguna automatikoki eguneratzea

Sakatu *Menú*, aukeratu *Ajustes*, *Ajustes de hora y hora* eta *Actualización auto de fecha y hora* (sare-zerbitzua). Telefonoa data eta ordua une horretan zauden lekuaren araberako data eta orduarekin automatikoki eguneratzeko moduan konfiguratzen, aukeratu *Activar*. Eguneratu aurretik berresteko eskatzeko moduan konfiguratzen, aukeratu *Confirmar antes*.

Data eta ordua automatikoki eguneratzeak ez du alarma, agenda edo alarma-oharrentzat definitutako ordua aldatzen; izan ere, tokiko ordua da jarritakoa. Definitu diren alarma batzuk amaitzea eragin dezake eguneratzeak.

Dei-doikuntzak

Deiak desbideratzea

Sakatu *Menú*, aukeratu *Ajustes*, *Ajustes de llamada* eta *Desvío de llamadas* (sare-zerbitzua). Funtzio honekin, sarrerako deiak beste zenbaki batera bidal ditzakezu, adibidez, ahots-postontziko zenbakira. Horri buruzko informazio gehiago lortzeko, galdetu zure zerbitzu-hornitzaileari. SIM txartelak edo Sare-operadoreak onartzen ez dituen deiak desbideratzeko aukerak ez dira bistaratuko.

Hautatu desbideratzeko aukera; adibidez, aukeratu *Desvío si ocupado* zure zenbakia okupatuta dagoenean edo sarrerako dei bat onartzen ez denean ahots-deiak desbideratzeko.

Desbideratzeko doikuntzak aktibatzen, aukeratu *Activar* eta, ondoren, aukeratu deia zenbat denbora desbideratuko den, betiere, desbideratzeko aukera hori eskura badago. Aukeratu *Cancelar* edo *Verificar* estado desbideraketa aktibatuta dagoen ala ez ikusteko. Desbideratzeko aukera bat baino gehiago egon daitezke aktibatuta aldi berean.

Aktibaturik dauden deien desbideratze guztiak aldi berean ezabatzeko, aukeratu *Cancelar todos los desvíos*.

Pantaila zuri dagoela deiak desbideratzeko adierazleak azaltzeko, ikus Pantaila zuria 21. orrialdean

Edozein teklak erantzuten du

Sakatu Menú, aukeratu *Ajustes*, *Ajustes de llamada* eta, ondoren, *Cualquier tecla responde*. Sí aukeratzen baduzu, sarrerako dei bati erantzun ahal izango diozu edozein tekla une labur batez sakatuta ,  eta  aukeraketa-teklak eta  sakatuta izan ezik.

Automatikoki berriz deitzea

Sakatu Menú, aukeratu *Ajustes*, *Ajustes de llamada* eta, ondoren, *Re llamada automática*. *Activar* aukeratzen baduzu, dei-saio batean konexioa lortu ez badu, telefonoak deitzeko hamar saio egingo ditu gehienez.

Markaketa bizkorra

Sakatu Menú, aukeratu *Ajustes*, *Ajustes de llamada* eta, ondoren, *Marcación rápida*. *Activar* aukeratu baduzu, markaketa bizkorreko teklei 2abc tik 9wxyz ra esleitutako telefono-zenbakiak eta izenak dagozkien zenbaki-teklak luze sakatuta marka daitezke.

Deia zain uzteko aukera

Sakatu Menú, aukeratu *Ajustes, Ajustes de llamada* eta, ondoren, *Llamada en espera*. *Activar* aukeratzen baduzu, hitz egiten ari zaren bitartean beste deiren bat duzula ohartaraziko dizu sareak (sare-zerbitzua). Ikus Deia zain uzteko aukera, 37. orrialdean.

Deitu ondorengo laburpena

Sakatu Menú, aukeratu *Ajustes, Ajustes de llamada* eta, ondoren, *Resumen tras la llamada*. *Activar* aukeratzen baduzu, azken deia ireaupena eta kostua bistaratuko dizkizu une batez telefonoak (sare-zerbitzua).

Dei-egilearen identitatea bidaltzea

Sakatu Menú, aukeratu *Ajustes, Ajustes de llamada* eta, ondoren, *Envío de identidad del llamante*. Sí aukeratzen baduzu, deitzen ari zaren pertsonaren telefonoaren pantailan agertuko da zure telefono-zenbakia (sare-zerbitzua). *Fijado por la red* aukeratzen baduzu, zerbitzu-hornitzailearekin hitzartutako aukera erabiliko da.

Irteten diren deientzako linea

Irteten ari den deia erantzako linearen funtzioa sare-zerbitzu bat da, eta, abonatuaren zenbakiaren arabera, deiak egiteko 1. edo 2. telefono-linea hautatzeko aukera ematen du.

Sakatu Menú, aukeratu *Ajustes, Ajustes de llamada* eta, ondoren, *Línea para llamadas salientes*. Línea 2 aukeratzen baduzu, eta sare-zerbitzu horretara abonatuta ez bazaude, ezingo duzu deirik egin. Hala ere, bi lineetan sartzen diren deiei hautatutako linea kontuan hartu gabe erantzun dakieke.

Bloquear aukeraren bidez, linea hautatzeko aukera galaraz dezakezu, zure SIM txartelak horretarako aukera ematen badizu.

Funtzio honen erabilgarritasunari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zure zerbitzu-hornitzailearekin.



Iradokizuna: Pantaila zuri dagoela, luze sakatu **#** **▲** tekla lerro batetik bestera pasatzeko.

Telefonoaren doikuntzak

Telefonoaren hizkuntza

Aukeratu pantailako testuak zein hizkuntzatan ateratzea nahi duzun. Sakatu **Menú**, aukeratu *Ajustes*, *Ajustes del teléfono* eta, ondoren, *Idioma del teléfono. Automático* aukeratzen baduzu, telefonoak SIM txartelean dagoen informazioaren arabera aukeratuko du hizkuntza.

Automatikoki blokeatzea



Oharra: Teklatua babesteko aukera aktibatuta dagoenean, telefonoan programatutako larrialdi-zenbakietara deitu daiteke (adibidez, 112 zenbakira edo beste larrialdi-zenbaki ofizial batera). Markatu larrialdi-zenbakia eta sakatu **■**. Azken digitua sakatu arte ez da zenbakirik bistaratuko.

Aurrez zehaztutako denbora-tarte bat igarotakoan telefonoaren teklatua automatikoki blokeatzeko konfiguratu dezakezu. 10 segundo eta 60 minutuko tartea finka daiteke (minutuak:segundoak), eta, tarte hori pasatutakoan, teklatua automatikoki blokeatuko da tekla nahi gabe ez aktibatzeko.

Sakatu Menú, aukeratu *Ajustes, Ajustes del teléfono* eta, ondoren, *Bloqueo auto del teclado*.

- Blokeo automatikoa aktibatzeko, aukeratu *Activar* eta telefonoak *Fije retardo*: mezua bistaratuko du. Sartu ordua eta sakatu *Aceptar*.
- Blokeo automatikoa desaktibatzeko, aukeratu *Desactivar*.

Ikus, halaber, Teklatua blokeatzea, 30. orrialdean.

Sare zelularren informazioa

Sakatu Menú, aukeratu *Ajustes, Ajustes del teléfono* eta *Presentación de info de célula* (sare-zerbitzua). Aukeratu *Activar*, telefonoak jakinaraz dezan noiz erabiltzen den Micro Cellular Network (MCN) teknologian edo sare mikrozelularren teknologian oinarritutako sare zelularrean.

Conexión GPRS aukera *Siempre en línea* gisa definituta badago, ezingo duzu informazio-mezurik jaso. Kasu horretan, definitu *Conexión GPRS* aukera *Cuando necesario* gisa. Ikus Aukeraturako datu-garraiatzailea GPRS denean dauden doikuntzak, 119. orrialdean.

Hasierako agurra

Sakatu Menú, aukeratu *Ajustes, Ajustes del teléfono* eta, ondoren, *Saludo inicial*. Idatzi telefonoa piztean pantailan agertzea nahi duzun oharra. Oharra gordetzeko, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Guardar*.

Sarea aukeratzea

Sakatu **Menú**, aukeratu *Ajustes, Ajustes del teléfono* eta, ondoren, *Selección de red. Automática* aukeratzen baduzu, telefonoak automatikoki aukeratzen du inguru horretan erabilgarri dauden sare zelularretako bat.

Aukeratu *Manual*, tokiko sare-operadorearekin desplazamendu-akordio bat duen sareetako bat aukeratzeko. *No hay acceso* agertzen bada, beste sare bat aukeratu beharko duzu. Telefonoa eskuzko moduan egongo da modu automatikoa aukeratu arte edo beste SIM txartel bat sartu arte.

SIM zerbitzuko ekintzak berrestea

Ikus SIM zerbitzuak (14. menua), 130. orrialdea.

Laguntza-testua aktibatzea

Laguntza-testuak agertzeko edo ez agertzeko moduan konfiguratzeke, sakatu **Menú**, eta aukeratu *Ajustes, Ajustes del teléfono* eta *Activación de texto de ayuda*. Ikus, halaber, Menuak erabiltzea, 45. orrialdean.

Hasierako tonua

Pizteko garaian hasierako tonua emititzeko edo ez emititzeko moduan konfiguratzeke, sakatu **Menú**, aukeratu *Ajustes, Ajustes del teléfono* eta *Tono inicial*.

Pantailaren doikuntzak

Horma-papera

Pantaila zuri dagoenean, hondoan irudi bat, horma-papera, bistartzeko defini daiteke telefonoa. Irudi batzuk aurretik daude gordeta Galería menuan.

Halaber, multimedia-mezen bidez irudiak jaso ditzakezu, zerbitzu-orrietatik deskarga ditzakezu edo PCTik PCSuite-ren bidez transferi ditzakezu, eta, ondoren, *Galería* menuan jaso. Telefonoak JPEG, GIF, BMP eta PNG formatuak onartzen ditu.

Irudi bat horma-paper gisa aukeratzeko

1. Sakatu *Menú*, aukeratu *Ajustes*, *Ajustes de la pantalla* eta, ondoren, *Papel tapiz*.
2. Aukeratu *Selecc. imagen* eta *Galería* menuko karpeten zerrenda bistaratuko da.
3. Aukeratu karpeta eta joan zaitez nahi duzun irudiraino.
4. Irudia horma-paper gisa definitzeko, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Fijar como p. tapiz*.

Horma-papera aktibatzeko edo desaktibatzeko:

Sakatu *Menú*, aukeratu *Ajustes*, *Ajustes de la pantalla* eta, ondoren, *Papel tapiz*.
Horma-papera aktibatzeko edo desaktibatzeko, aukeratu, hurrenez hurren, *Activar* edo *Desactivar*.

Kolore-eskemak

Pantailako osagaien –adibidez, adierazleak eta seinale-barrak– kolorea alda daiteke.

Sakatu *Menú*, aukeratu *Ajustes*, *Ajustes de la pantalla* eta, ondoren, *Esquemas de color*. Aukeratu nahi duzun kolore-eskema.

Operadorearen logotipoa

Operadorearen logotipoa bistartzeko edo ez bistartzeko moduan konfiguratzeko, sakatu **Menú**, aukeratu *Ajustes*, *Ajustes de la pantalla* eta *Logotipo del operador*.

Erreparatu operadorearen logotipoa ez dela bistaratuko telefonoak pantaila-babesa aktibatzen duenean.

Informazio gehiago eta operadorearen logotipoa SMS, MMS edo Internet bidez eskuratzeko aukerari buruzko informazioa lortzeko, jarri harremanetan zure sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin. Ikus, halaber, *PC Suite*, 131. orrialdean.

Pantailaren distira

Telefonoaren pantailako distira-maila alda dezakezu. Sakatu **Menú**, aukeratu *Ajustes*, *Ajustes de la pantalla* eta, ondoren, *Brillo de la pantalla*. Mugi zaitetz (**↑** eta **↓**) teklekin, distira-maila igotzeko edo jaisteko, eta sakatu **Aceptar** onartzeko.

Tonuen doikuntzak

Sakatu **Menú**, aukeratu *Ajustes* eta, ondoren, *Ajustes de tonos*. *Modos* menuan ere aukera berberak daude. Ikus *Moduak* (4. menua), 83. orrialdean. Kontuan izan aldatzen dituzun aukerak modu aktiboan ere aldatuko direla. Hautatu:

- *Aviso de llamada entrante*, ahots-deiren bat sartzen ari dela ohartarazteko modua aukeratzeko. Aukera hauek daude: *Normal*, *Ascendente*, *Una sola vez*, *Sólo un "bip"* eta *Desactivado*.

- *Señal de llamada*, sarrerako ahots-deietarako. *Galería* menuan gordetako dei-seinaleetako bat aukeratzeko, hautatu *Abrir Galería* dei-seinaleen zerrendan.
- *Volumen de señal de llamada*, ahots-deietarako eta sarrerako mezuatarako.
- *Aviso por vibración*, ahots-deietarako eta sarrerako mezuatarako. Telefonoa kargagailu normal batera, mahai gaineko batera edo autoko kit batera konektatuta badago, bibrazio bidezko abisuak ez du funtzionatzen.
- *Tono de aviso para mensajes*, sartzen diren mezuentzako abisu-tonua definitzeko, *Sonido del teclado* edo *Tonos de aviso* telefonoak tonuak emititzeko, adibidez, bateria agortzen ari denean.
- *Sonido del teclado*, tonuaren bolumena definitzeko.
- *Tonos de aviso*, telefonoa soinu desberdinak emititzeko moduan konfiguratzeko, adibidez, bateriarik gabe geratzen ari bada.
- *Aviso luminoso rítmico*, telefono-argiak konfiguratzeko, mezu bat edo dei bat sartzen den bakoitzean, mezuentzako oraingo abisu-tonuaren edo sartzen diren deien abisu-tonuaren erritmoari jarraituz dir-dir egin dezan.
- *Aviso para*, hautatutako dei-egileen multzo bateko telefono-zenbakietatik deiak jasotzen direnean bakarrik jo dezan telefonoak. Joan zaitez nahi duzun dei-egileen multzoraino edo *Todas llamadas* aukeraraino eta sakatu *Selecc.*



Iradokizuna: OTA edo deskarga bidez dei-seinale bat jasotzen baduzu, gorde dei-seinale hori *Galería* menuan.

Osagarrien doikuntzak

Menu hau osagarri hauetara konektatuta badago edo egon bada bakarrik bistaratzen da: HDB-4 esku libreko kit eramangarria, CARK126 esku libreko unitatea, Xpress-on™ jokoetarako karkasa edo LPS-4 audiofono induktibo eramangarriaren egokitzailea.

Sakatu Menú, aukeratu *Ajustes* eta, ondoren, *Ajustes de accesorios*. *ML portátil*, *Manos libres*, *Adapt. audífono* edo *Carcasa de juegos* aukera dezakezu, dagokion osagarria telefonora konektatuta badago edo konektatuta egon bada. Hautatu:

- *Modo predeterminado*, aukeratutako osagarria konektatzean automatikoki zein modu aktibatzea nahi duzun hautatzeko. Osagarria konektatuta dagoen bitartean, beste modu bat aukera dezakezu.
- *Respuesta automática*, sartzen diren deiei telefonoak bost segundoan automatikoki erantzuteko. *Aviso de llamada entrante* aukera *Sólo un "bip"* edo *Desactivado* gisa definituta badago, automatikoki erantzuteko aukera ez da erabilgarri egongo.
- *Iluminación*, argia denbora guztian *Activar* moduan piztuta egon dadin. Aukeratu *Automática* tekla bat sakatu ondoren argia 15 segundoz piztuta edukitzeko. *Manos libres* aukera hautatuta badago bakarrik izango da eskura *Iluminación* aukera.
- *Iluminación de carcasa*, Xpress-on™ jokoan karkasa erabiltzeko argia aktibatzeko eta desaktibatzeko. Kontuan izan karkasaren argia aktibatuta izanda telefonoaren bateria azkarrago kontsumitzen dela.



Oharra: Desaktibatu karkasaren argia jendea distraitzea eragin dezakeen lekuetan.

Segurtasun-doikuntzak



Oharra: Deiak mugatzen dituzten segurtasun-ezaugarriak aktibatuta daudenean (deiak blokeatzea, erabiltzaile-talde itxia eta markaketa finkoa), sare batzuetan larrialdi-zenbaki jakin batzuetarako deiak egin daitezke (adibidez, 112, 911 edo beste larrialdi-zenbaki ofizial batzuetara).

Sakatu *Menú*, aukeratu *Ajustes* eta, ondoren, *Ajustes de seguridad*.

Hautatu:

- *Petición del código PIN*, telefonoak, piztean, PIN kodea eska dezan. SIM txartel batzuek ez dute aukerarik ematen PIN kodea eskatzeko aukera desaktibatzeko.
- *Servicio de restricción de llamadas* (sare-zerbitzua), telefonoan sartzen eta telefonotik ateratzen diren dei batzuk murrizteko. Ezinbestekoa da murrizketa-pasahitza.
- *Marcación fija*, telefono-zenbaki jakinetara egindako deiak murrizteko, baldin eta SIM txartelak funtzio hori badu. Ezinbestekoa da PIN2 kodea. Markaketa finkoa aktibatuta dagoenean, ezin da GPRS konexiorik egin, GPRS konexio bidez testu-mezuak bidaltzen direnean izan ezik. Kasu horretan, dei-hartzailearen telefono-zenbakia eta mezu-zentroaren zenbakia markatze finkoko zerrendan sartuta egon behar dute.

- *Grupo cerrado de usuarios*. Funtzio hau sare-zerbitzu bat da eta pertsona-talde edo taldeak zehazten ditu, zuk haiei deitzeko edo haien deiak jasotzeko. Informazio xeheagoa eskuratzeko, jarri harremanetan sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.

- *Nivel de seguridad*. Aurrez definitutako kodea 12345 da.

Aukeratu Teléfono, SIM txartel berri bat sartzen duzun bakoitzean telefonoak segurtasun-kodea eskatzeko.

Aukeratu *Memoria*, SIM txartelaren memoria hautatuta dagoenean eta memoria hori aldatu nahi duzunean telefonoak segurtasun-kodea eskatzeko (ikus *Kontaktu*etarako *doikuntzak* aukeratzea, 75. orrialdean) edo memoria bat beste batean kopiatu nahi duzunean eskatzeko (ikus *Kontaktuak* kopiatzea, 79. orrialdean).

- *Códigos de acceso*, segurtasun-kodea, PINa edo PIN2a aldatzeko edo pasahitza murrizteko. Kodeak Otik 9rako karaktereekin bakarrik osa daitezke.

Hasierako balioak berriro ezartzea

Menuko aukeren hasierako balioak berriz ezartzeko, sakatu *Menú*, aukeratu *Ajustes* eta *Restablecer los valores iniciales*. Sartu segurtasun-kodea eta sakatu *Aceptar*. Kontuan izan sartutako edo deskargatutako datuak, aurkibidean sartutako izenak eta telefono-zenbakiak adibidez, ez direla ezabatuko.

■ Alarma (6. menua)

Alarmak erlojurako definitutako denbora-formatua erabiltzen du.



Sakatu **Menú** eta aukeratu **Alarma**.

- Alarma konfiguratzeko, aukeratu *Hora de alarma* eta sartu alarmaren ordua. Alarma jotzeko definituriko ordua aldatzeko, aukeratu *Activar*.
- Alarmarentzako tonua definitzeko, aukeratu *Señal de alarma* eta nahi duzun tonua.

Alarma abiaraztea

Telefonoak abisu-tonu bat joko du eta pantailan *¡Alarma!* mezua eta ordua bistaratuko dira.

Sakatu **Detener** alarma geldiarazteko. Telefonoari minutu batez ohar-tonua emititzen uzten badiozu edo **Repetir** sakatzen baduzu, alarma hamar bat minutuz gelditzen da eta, gero, berriro jotzen du.

Telefonoa itzalita dagoela programaturiko alarma-ordua iristen bada, telefonoa automatikoki piztuko da eta alarma-tonua jotzen hasiko da. **Detener** sakatzen baduzu, telefonoa deiak egiteko aktibatu nahi ote duzun galdetuko dizu telefonoak. Sakatu **No** telefonoa itzaltzeko, edo **Sí** pizteko.



Oharra: Ez sakatu **Sí** telefono mugikorrak erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskurik eragin dezakeen lekuetan.

■ Galeria (7. menua)



Esate baterako, multimedia-mezu batean jasotako irudiak eta dei-seinaleak galeriako karpetetan jaso ditzakezu. Ikus Multimedia mezuak irakurtzea eta horiei erantzutea, 64. orrialdean.

Galeriak memoria partekatua erabiltzen du, ikus Memoria partekatua, 18. orrialdean.



Oharra: Funtzio hau erabiltzeko, telefonoak piztuta egon behar du. Ez piztu telefonoa mugikorrak erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

1. Sakatu *Menú* eta aukeratu *Galería*. Aukeren zerrenda bistaratuko da.
2. Aukeratu *Ver carpetas* karpeten zerrenda irekitzeko.

Gainerako aukerak hauek dira:

- *Añadir carpeta*, karpeta berri bat sartzeko. *Introduzca un nombre para la carpeta y pulse Aceptar*.
- *Borrar carpeta*, ezabatu nahi duzun karpeta aukeratzeko. Telefonoko jatorrizko karpetak ezin dira ezabatu.
- *Renombr. Carpeta*, beste izen bat eman nahi diozun karpeta aukeratzeko. Telefonoko jatorrizko karpetei ezin zaie izena aldatu.
- *Descargas Galería*, irudi eta seinale gehiago deskargatzeko. Aukeratu *Descargas imágenes*, edo *Descargas tonos*, hurrenez hurren. Eskura dituzun gogokoen zerrenda bistaratuko da. Aukeratu *Más favoritos*, *Servicios* menuko gogokoen zerrendara joateko. Ikus Gogokoak, 125. orrialdean.

Nahi duzun orrira konektatzeko, aukeratu gogoko egokia. Konexioak huts egiten badu, baliteke aktibo dauden konexio–doikuntzak dituen zerbitzutik orrira sartzeko aukerarik ez izatea. Kasu horretan, sartu *Servicios* menura eta aktibatu zerbitzuak doitzeko beste talde bat. Ikusi *Zerbitzu* batekin konektatzea, 120. orrialdean. Saia zaitez berriz ere orriarekin konektatzen.

Kontsultatu zerbitzuen erabilgarritasuna, prezioak eta tarifak, zure sare–operadorearekin edo zerbitzuen hornitzailearekin.

1. Aukeratu zuk nahi duzun karpeta, eta karpetako artxiboen zerrenda bistaratuko da. *Imágenes* eta *Tonos* telefonoaren jatorrizko karpetak dira.
2. Joan zaitez nahi duzun artxiboraino. Sakatu *Opciones* eta eskura dituzun aukera hauetako batzuk bistaratuko dira.
 - *Abrir*, aukeratutako artxiboa irekitzeko.
 - *Borrar*, aukeratutako artxiboa ezabatzeko.
 - *Enviar*, artxibo bat multimedia–mezu batekin bidaltzeko.
 - *Mover*, artxiboa beste karpeta batera mugitzeko.
 - *Renombrar*, artxibo berriari izen bat esleitzeko.
 - *Fijar como p. Tapiz*, horma–paper gisa aukeratutako artxiboa definitzeko.
 - *Fijar como señal*, aukeratutako artxiboa dei–seinale gisa definitzeko.
 - *Detalles*, artxiboaren xehetasunak, tamaina adibidez, ikusteko.

- *Clasificar* artxiboak eta karpetak dataren, motaren, izenaren edo tamainaren arabera ordenatzeko.

Agenda (8. menua)



Ohar-mezuak, egin beharreko deiak eta urtebetetze-egunak kudeatzeko erabil dezakezu agenda.

Agendak memoria partekatua erabiltzen du, ikus *Memoria partekatua*, 18. orrialdean.



Oharra: *Agenda* menuko funtzioak erabiltzeko, telefonoak piztuta egon behar du. Ez piztu telefonoa mugikorrak erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

Sakatu *Menú* eta aukeratu *Agenda*.



Iradokizuna: *Agenda* menua bizkor irekitzeko, sakatu **]** pantaila zuri dagoela.

Joan zaitez nahi duzun eguneraino. Egunaren inguruko koadroak adierazten du uneko data. Egun horretarako oharren bat definituta badago, beltzez agertuko da. Lehenenik eguneko oharra ikusteko, aukeratu *Opciones* eta aukeratu *Notas del día*.



Iradokizuna: Oharren zerrendan egunetik egunera joateko, sakatu **(** edo **)**

Ohar bat ezabatzeko, joan ezabatu nahi duzun oharreraino, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Ver*. Oharrak bistaratzeak aukeratutako oharraren xehetasunak ikusteko aukera ematen du. Oharrean atzera eta aurrera joan zaitezke.



Iradokizuna: Oharrak ikusteko aukeran, eguneko oharretan batetik bestera joateko, sakatu (edo)

Agenda bistartzeko beste aukera batzuk ere badaude; besteak beste, hauek:

- Oharra sortzeko, oharra beste telefono batera bidaltzeko edo oharra beste egun batean kopiatzeko aukerak.
- Ohar bat ezabatzeko, aldatzeko, mugitzeko eta errepikatzeko aukerak.
- *Ajustes* aukerarekin, eguna, ordua, egunaren edo orduaren formatua eta asteko lehen eguna defini ditzakezu. *Borrado auto* aukerak, denbora-tarte jakin bat pasatu ondoren, ohar zaharrak automatikoki ezabatzeko konfiguratzeko aukera ematen du. Hala ere, aukera horrek ez ditu maiztasun jakin batekin errepikatzen diren oharrak ezabatzen (adibidez, urtebetetze-egunetakoak).

Agendan ohar bat sortzea

Letrak eta zenbakiak sartzeko, ikus *Testua idaztea* 39. orrialdean.

Sakatu *Menú* eta aukeratu *Agenda*. Mugitu nahi duzun dataraino, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Crear una nota*. Aukeratu ohar-mota hauetako bat:

-  *Nota de aviso*: sar ezazu abisu-oharraren gaia, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Guardar*. Oharrarentzako alarma definitzeko, aukeratu *Alarma sí* eta, ondoren, alarmak zein ordutan jo behar duen.

- 📞 **Llamar a:** idatzi telefono-zenbakia eta sakatu **Opciones** eta aukeratu **Guardar**. Idatzi erabiltzailearen izena, sakatu **Opciones** eta aukeratu **Guardar**. (Telefono-zenbakia idatzi beharrean, **Opciones** sakatuta izena eta zenbakia aurkitu ahal izango ditugu aurkibidean.) Ondoren, sar ezazu deia zein ordutan egin behar den eta sakatu **Aceptar**. Oharrerako alarma definitzeko, aukeratu **Con sonido** edo **Silenciosa** (ohar-tonurik gabe) eta, ondoren, alarmaren ordua.
- 🎁 **Cumpleaños:** idatzi pertsonaren izena (edo sakatu **Opciones** aurkibidean bilatzeko), sakatu **Opciones** eta aukeratu **Guardar**. Ondoren, sartu jaiotze-data eta sakatu **Aceptar**. Oharrerako alarma definitzeko, aukeratu **Con sonido** edo **Silenciosa** (ohar-tonurik gabe) eta, ondoren, alarmaren ordua.

Alarma definitu bada, 📞 adierazlea azalduko da oharrak bistaratzekoan.

Ohar bati lotutako alarma aktibatzea

Telefonoak "bip" bat emititzen du eta pantailan oharra bistaratzen da. Pantailan dei-ohar bat agertzen denean, 📞, bistaratutako zenbakira dei dezakezu ➡ tekla sakatuta. Alarma geldiarazi eta oharra ikusteko, sakatu **Ver**. Alarma oharra ikusi gabe gelditzeko, sakatu **Salir**.

■ Jokoak (9. menua)

Telefonoaren softwareak bereziki Nokia telefono honetarako diseinatutako joko batzuk ditu.





Oharra: Funtzio hau erabiltzeko, telefonoak piztuta egon behar du. Ez piztu telefonoa mugikorrek erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

Joko bat abiaraztea

1. Sakatu **Menú**, aukeratu *Juegos* eta, ondoren, *Seleccionar juego*.
2. Joan zaitetz joko batera edo joko-multzo batera (izena jokoaren arabera aldatuko da).
3. Sakatu **Opciones** eta aukeratu *Abrir*, edo sakatu  Joko bakar bat aukeratu baduzu, jokoa abiarazi egingo da.

Hala ez bada, aukeratutako joko-multzoko jokoen zerrenda agertuko da. Jokoa abiarazteko, desplazatu zuk nahi duzun jokoraino, eta sakatu **Opciones** eta aukeartu *Abrir*, edo sakatu .

Kontuan izan joko batzuk erabiltzen badituzu bateriaren azkarrago deskarga daitekeela (eta baliteke telefonoa kargagailura konektatu behar izatea).

Joko edo joko-multzo batean erabil daitezkeen aukera osagarriak

Jokoen aukerari buruzko informazio gehiago jasotzeko, ikus *Aukera* gehiago daude aplikazio baterako edo aplikazio-multzo baterako 108. orrialdean.

Jokoak deskargatzea

Sakatu *Menú*, aukeratu *Juegos* eta, ondoren, *Descargas juegos*. Eskura dituzun gogokoen zerrenda bistaratuko da. Aukeratu *Más favoritos*, *Servicios* menuko gogokoen zerrendara joateko. Ikus Gogokoak, 125. orrialdean.

Nahi duzun zerbitzura konektatzeko, aukeratu gogoko egokia. Konexioak huts egiten badu, baliteke aktibo dauden konexio–doikuntzak dituen zerbitzura sartzeko aukerarik ez izatea. Kasu horretan, sartu *Servicios* menura eta aktibatu zerbitzuak doitzeko beste talde bat. Ikusi *Zerbitzu* batekin konektatzea, 120. orrialdean. Saia zaitetz berriz ere zerbitzuarekin konektatzen.

Kontsultatu zerbitzuen erabilgarritasuna, prezioak eta tarifak, zure sare–operadorearekin edo zerbitzuen hornitzailearekin.

Joko bat edo aplikazio bat deskargatzerakoan, kontuan izan *Aplicaciones* menuan gorde daitezkeela *Juegos* menuan gorde beharrean.



Kontuan izan Nokiak ez duela inolako bermerik ematen Nokiarenak ez diren guneetatik datozen aplikazioentzat. Aplikazioak horietatik deskargatzea erabakitzen baduzu, beste edozein lekutan hartuko zenituzkeen ardura berak hartu beharko dituzu segurtasunari eta edukiari dagokienez.

Jokoetarako memoriaren egoera

Memorian jokoak eta aplikazioak instalatzeko zenbat leku duzun ikusteko, sakatu *Menú*, sakatu *Menú*, aukeratu *Juegos* eta *Memoria*.

Jokoek memoria partekatua erabiltzen dute, ikus Memoria partekatua, 18. orrialdean.

Jokoen doikuntzak

Sakatu *Menú*, aukeratu *Juegos* eta *Ajustes* jokoaren soinuak, argiak eta bibrazioak definitzeko.

■ Aplikazioak (10. menua)

Telefonoan instalatutako Java aplikazioak kudeatzeko aukera ematen du menu honek. Telefonoaren softwareak bereziki Nokia telefono honetarako diseinatutako Java aplikazio batzuk ditu. Zerbitzu-hornitzaile batzuk beste aplikazio batzuk eskaintzen dituzte. Aplikazio horietako bat erabiltzeko, aurrez telefonoan deskargatu beharko duzu.



Oharra: Funtzio hau erabiltzeko, telefonoak piztuta egon behar du. Ez piztu telefonoa mugikorrek erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

Aplikazio bat abiaraztea

1. Sakatu *Menú*, aukeratu *Aplicaciones* eta, ondoren, *Seleccionar aplic.*
2. Joan zaitetz aplikazio bateraino edo aplikazio-multzo bateraino (izena aplikazioaren arabera aldatuko da).
3. Sakatu *Opciones* eta aukeratu *Abrir*, edo sakatu  Aplikazio bakar bat aukeratu baduzu, jokia abiarazi egingo da.

Hala ez bada, aukeratutako aplikazio-multzoko aplikazioen zerrenda agertuko da. Horietako aplikazio bat abiarazteko, joan zuk nahi duzun aplikazioraino eta sakatu *Opciones* eta aukeratu *Abrir*, edo sakatu .

Kontuan izan aplikazio batzuk erabiltzen badituzu bateriaren azkarrago deskarga daitekeela (eta baliteke telefonoa kargagailura konektatu behar izatea).

Beste aukera batzuk ere badaude aplikazio baterako edo aplikazio-multzo baterak

- *Borrar*, aplikazio bat edo aplikazio-multzo bat telefonotik ezabatzeko. Kontuan izan telefonotik aurrez instalatutako aplikazio bat edo aplikazio-multzo bat ezabatuagatik aplikazioa berriro ere deskarga dezakezula Nokia Software Market-etik, www.softwaremarket.nokia.com.
- *Acceso a la web* sarera sartzeko aplikazioa murrizteko. Aukeratu *Preguntar antes* eta telefonoak sarera sartzeko eskatuko dizu, *Permitido* sar dadila onartzeko, edo *No permitido* sarera ez sartzeko.
- *Actualizar versión*, zerbitzuetatik deskargatzeko aplikazioaren bertsio berria eskuragarri dagoen egiaztatzeko, aplikazioak onartzen badu.
- *Página web*, Interneteko orri batetik aplikazioari buruzko informazio xeheagoa edo datu osagarriak emateko. Beharrezkoa da sareak funtzio hori onartzea. Aplikazioarekin Interneteko helbide bat eman bada bakarrik bistaratuko da.
- *Ajustes de servicio*, nabigatzaileako aplikazio batzuk behar dituzten doikuntza espezifikokoak eta aurrez definitutakoak.
- *Detalles*, aplikazioari buruzko informazio osagarria izateko.

Aplikazio bat deskargatzea

Telefonoak Java J2METM aplikazioak onartzen ditu. Deskargatu aurretik, ziurta ezazu aplikazioa telefonoarekin bateragarria dela.

Java aplikazio berriak hainbat erataraz deskarga daitezke:

- Menú sakatzen baduzu eta *Aplicaciones* eta *Descargas aplics.* aukeratzen baduzu, eskuragarri dauden gogokoen zerrenda bistaratuko da. Aukeratu *Más favoritos*, *Servicios* menuko gogokoen zerrendara joateko. Ikus Gogokoak, 125. orrialdean.

Nahi duzun zerbitzura konektatzeko, aukeratu gogoko egokia. Konexioak huts egiten badu, baliteke aktibo dauden konexio-doikuntzak dituen zerbitzura sartzeko aukerarik ez izatea. Kasu horretan, sartu *Servicios* menura eta aktibatu zerbitzuak doitzeko beste talde bat. Ikusi *Zerbitzu* batekin konektatzea, 120. orrialdean. Saia zaitez berriz ere zerbitzuarekin konektatzen.

Kontsultatu zerbitzuen erabilgarritasuna, prezioak eta tarifak, zure sare-operadorearekin edo zerbitzuen hornitzailearekin.

- Sakatu Menú eta aukeratu *Servicios* Java aplikazio egokia deskargatzeko orria bilatzeko. Ikus *Zerbitzu* baten orrietan nabigatzea, 121. orrialdean.
- Erabili jokoak deskargatzeko utilitatea; ikus *Jokoak* deskargatzea, 106. orrialdean.
- Aplikazioak PC bateragarri batetik telefonora deskargatzeko, erabili PC Suite-ren Nokia Application Installer.



Kontuan izan Nokiak ez duela inolako bermerik ematen Nokiarenak ez diren guneetatik datozen aplikazioentzat. Java aplikazioak horietatik deskargatzea erabakitzen baduzu, beste edozein lekutan hartuko zenituzkeen ardura berak hartu beharko dituzu segurtasunari eta edukiari dagokienez.

Joko bat edo aplikazio bat deskargatzerakoan, kontuan izan *Juegos* menuan gorde daitezkeela *Aplicaciones* menuan gorde beharrean.

Deskargatzen ari zarela edo Java aplikazio bat exekutatzen ari zarela, mezu hauek bistara daitezke:

- *Acción fallida*, eragiketan akats bat izan dela adierazteko.
- *Error en la aplicación*, aplikazioan akats bat izan dela adierazteko.
- *Aplicación no admitida*, aplikazioa eta telefonoa bateraezinak direla adierazteko.
- *Llamada en curso*, hitz egiten ari zaren bitartean aplikazioa web konexioa egiten saiatzen ari dela adierazteko.
- *Formato de archivo desconocido*, telefonoak artxiboaren formatua ez duela identifikatzen adierazteko.
- *Archivo demasiado grande*, telefonoan erabiltzeko artxiboa handiegia dela adierazteko edo pasabideak artxibo handiak onartzen ez dituela adierazteko.
- *Archivo no válido*, aplikazioa ez dela baliagarria adierazteko.
- *Fallo de lanzamiento*, telefonoak aplikazioa egin duela abiarazi adierazteko. Saiatu berriro.

- *Imposible ejecutar la aplicación*, aplikazioa exekutatzeke nahi baliabide ez dagoela adierazteko. Aktibo dauden deiak edo funtzioak amaitu eta aplikazioa berriro irekitzen saiatzen da.
- *Desconocida* (aplikazioen zerrendan bistaratzen da), aplikazioak ez duela balio adierazteko.

Aplikazioetarako memoriaren egoera

Memorian jokoak eta aplikazioak instalatzeko zenbat leku duzun ikusteko, sakatu **Menú**, aukeratu *Aplicaciones* eta *Memoria*.

Aplikazioek memoria partekatua erabiltzen dute, ikus *Memoria partekatua*, 18. orrialdean.

■ Gehigarriak (11. menua)

Menu honekin telefonoak funtzio praktiko batzuk eskaintzen ditu.



Oharra: Extras menuko funtzioak erabiltzeko, telefonoak piztuta egon beharko du. Ez piztu telefona mugikorak erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

Kalkulagailua

Telefonoaren kalkulagailuak batuketak, kenketak, biderketak, zatiketak eta berreketak egiten ditu, eta, gainera, erro karratua aurkitzen du eta moneta-bihurketak egiten ditu.

Kalkulagailu honek zehaztasun mugatua du, eta biribiltzerakoan akatsak egin ditzake, bereziki zatiketa luzeetan.

1. Sakatu **Menú**, aukeratu *Extras* eta, ondoren, *Calculadora*.
2. Pantailan «0» agertzen denean, sartu kalkulan erabiliko duzun lehen zenbakia; sakatu **#** **↵** tekla, hamartarren koma idazteko.
3. Sakatu **Opciones** eta aukeratu *Sumar, Restar, Multiplicar, Dividir, Cuadrado, Raíz cuadrada* edo *Cambiar signo*.



Iradokizuna: Metodo alternatibo gisa, sakatu ... behin batuketa egiteko, bitan kenketa egiteko, hirutan biderketa egiteko eta lautan zatiketa egiteko.

4. Sartu bigarren zenbakia.
5. Guztizkoa kalkulatzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Resultado*. Errepikatu 3tik 5erako urratsak behar adina alditan.
6. Beste kalkulu bat egiteko, *Borrar* tekla sakatuta eduki beharko duzu lehenik.

Moneta-bihurketa egiteko

1. Sakatu **Menú**, aukeratu *Extras* eta, ondoren, *Calculadora*.
2. Truke-tasa gordetzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Tipo de cambio*. Aukeratu pantailan agertzen diren aukeretako bat. Sar ezazu truke-tasa (sakatu tekla hamarrenen komarako) eta sakatu **Aceptar**. Truke-tasa memorian gordeko da, beste batez ordezkatu arte.
3. Moneta-bihurketa egiteko, sar ezazu bihurtu nahi duzun kopurua, sakatu **Opciones** eta aukeratu *A nacional* edo *A extranjera*.



Iradokizuna: Moneta-bihurketa pantaila hutsik dagoela ere egin daiteke. Sartu bihurtu nahi duzun zenbatekoa, sakatu **Opciones** eta aukeratu *A nacional* edo *A extranjera*.

Atzerako kontaketa-tenporizadorea

Sakatu **Menú**, aukeratu *Extras* eta, ondoren, *Temporizador de cuenta atrás*. Sartu alarmak zein ordutan eta minututan jotzea nahi duzun eta sakatu **Aceptar**. Nahi izanez gero, idatzi testu-ohar bat atzerako kontaketa amaitzen denean agertzeko, eta sakatu **Aceptar** atzerako kontaketa-tenporizadorea martxan jartzeko.

- Atzerako kontaketa-tenporizadorearen ordua aldatzeko, aukeratu *Cambiar tiempo*, eta, geldiarazteko, aukeratu *Detener temporiz.*

Alarma jotzeko ordua pantaila zuri dagoela iristen bada, tonu bat entzungo da eta testu-oharra keinuka bistaratuko da, hala definituta badago; bestela, *Terminó la cuenta atrás* bistaratuko da. Sakatu edozein tekla alarma geldiarazteko. Teklarik sakatzen ez baduzu, alarma automatikoki geldituko da 30 segundo pasatu ondoren. Alarma geldiarazi eta oharra ezabatzeko, sakatu **Aceptar**.

Kronometroa

Kronometroa erabilia, denbora neur dezakezu eta tarteko denborak edo fase bakoitzeko denborak eskura ditzakezu. Denbora neurtzen duen bitartean, telefonoaren gainerako funtzioak ere erabil ditzakezu. Kronometroak bigarren mailan funtzionatzea nahi baduzu, sakatu .

Kronometroa erabiltzeak bateria gastatzen du, eta telefonoa denbora gutxiagoz ibili ahal izango da. Ez dezala aktibo segitu bigarren planoan, telefonoarekin bestelako eragiketak egiten dituzun bitartean.

Denbora neurtzea eta banatzea

1. Sakatu **Menú**, aukeratu *Extras*, *Cronómetro* eta, ondoren, *Tiempo dividido* Denbora atzeko planoan neurtzeko moduan konfiguratu baduzu telefonoa, *Continuar* aukera dezakezu.
2. Sakatu **Iniciar** denbora neurtzeari ekiteko. Sakatu *Dividido* tarteko denbora bat lortu nahi duzun bakoitzean. Tarteko denborak pantailan agertuko dira, denbora-adierazlearen azpian. Mugitu pantailan zehar denborak ikusteko.
3. Sakatu **Detener** denboraren neurketa gelditzeko.
4. Sakatu **Opciones** eta aukeratu

Iniciar, berriro denbora neurtzeari ekiteko. Hartutako denbora aurrekoari gehitzen zaio.

Guardar, denbora gordetzeko. Eman izen bat kronometraturako denborari eta sakatu **Aceptar**. Izenik sartzen ez bada, izenburu gisa denboraren guztizkoa erabiliko da.

Reiniciar, denbora gorde gabe berrezartzeko.

Fase bakoitzeko denborak

Sakatu **Menú**, aukeratu *Extras*, *Cronómetro* eta, ondoren, *Tiempo por fase*. Sakatu *Iniciar* denbora neurtzen hasteko eta *Fase* fase baten denbora neurtzeko. Sakatu **Detener** fasekako denbora geldiarazteko. Sakatu **Opciones** fasekako denborak gorde edo berrezartzeko. Ikus aurreko atala, Denbora neurtzea eta banatzea.

Denborak bistaratzea eta ezabatzea

Sakatu *Menú*, aukeratu *Extras* eta, ondoren, *Cronómetro*.

Kronometroa zeroan jarri ez bada, *Mostrar último* aukera dezakezu, kronometratutako azken denbora ikusteko. Aukeratu *Ver tiempos* denbora-multzoen izenen edo azken denboren zerrenda ikusteko. Aukeratu ikusi nahi duzun denbora-multzoa.

Gordetako denborak ezabatzeko, aukeratu *Borrar tiempos*. Aukeratu *Borrar todo* eta sakatu *Aceptar*, edo aukeratu *De uno en uno*, joan ezabatu nahi dituzun denboretaraino, sakatu *Borrar* eta, ondoren, sakatu *Aceptar*.

■ Zerbitzuak (12. menua)

Interneteko zenbait zerbitzutara sar zaitezke. Adibidez, informazio meteorologikoa, albisteak edo hegaldien ordutegiak eta finantza-informazioa.



Zerbitzu horien erabilgarritasunari, prezioei eta tarifei buruzko informazioa lortzeko, jarri harremanetan zure sareko operadorearekin edo erabili nahi duzun zerbitzuaren hornitzailearekin. Zerbitzu-hornitzaileak ere adieraziko dizu nola erabili bere zerbitzuak.



Oharra: Funtzio hau erabiltzeko, telefonoak piztuta egon behar du. Ez piztu telefonoa mugikorrak erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

Telefonoaren modu anitzeko nabigatzailearekin, WML (Wireless Mark-Up Language) edo xHTML (extensible HyperText Markup Language) erabiltzen duten zerbitzuak ikusi ahal izango dituzu haien orrietan.

Telefonoaren pantaila eta memoria ordenagailu batekoak baino txikiagoak direnez, Interneteko edukia beste modu batera bistaratuko da telefonoaren pantailan. Kontuan izan agian ez dituzula ikusiko Interneteko orrietako xehetasun guztiak.

Zerbitzuetara sartzeko eta horiek erabiltzeko oinarrizko prozedura

1. Gorde itzazu erabili nahi duzun zerbitzura sartzeko beharrezko zerbitzu-doikuntzak. Ikus 116. orrialdea.
2. Ezarri konexioa aukeraturiko zerbitzuarekin. Ikus 120. orrialdea.
3. Hasi nabigatzen zerbitzuaren orrietatik. Ikus 121. orrialdea.
4. Nabigatzen bukatzen duzunean, eten zerbitzuarekin duzun konexioa. Ikus 123. orrialdea.

Telefonoa zerbitzuak erabiltzeko konfiguratzeari

Erabili nahi duzun zerbitzua eskaintzen duen sare-operadorearen edo zerbitzu-hornitzailearen OTA mezu gisa jaso daitezke zerbitzu-aukerak. Doikuntzak eskuz ere sar ditzakezu edo PC Suite-rekin erantsi eta edita ditzakezu.

Doikuntza egokiei buruzko informazio gehiago izateko, jarri harremanetan sare-operadorearekin edo erabili nahi duzun zerbitzua ematen duen zerbitzu-hornitzailearekin. Doikuntzak, esate baterako, web orrietan egon daitezke eskura.

OTA mezu gisa jasotako zerbitzu-doikuntzak gordetzea

Zerbitzu-doikuntzak OTA mezu gisa jasotzen dituzunean, *Ajustes de servicio recibidos* mezua bistaratuko da

- Jasotako doikuntzak gordetzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Guardar*.

Ajustes de servicio activos atalean aukera bat bera ere gordeta ez badago, doikuntzak konexio libreen lehen multzoan gordetzen dira eta aktibatuta geratzen dira.

Ajustes de servicio activos aukeran doikuntzak gordeta badaude, *¿Activar los ajustes de servicio guardados?* Mezua bistaratuko da. Gordetako doikuntzak aktibatzeke, sakatu *Sí*; gorde besterik egin nahi ez baduzu, sakatu *No*.

- Lehenik jasotako doikuntzak ikusteko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Ver*. Doikuntzak gordetzeko, sakatu **Guardar**.
- Jasotako aukerak baztertzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Descartar*.

Zerbitzu-doikuntzak eskuz sartzea

1. Sakatu **Menú**, aukeratu *Servicios*, *Ajustes*, eta ondoren, *Ajustes de conexión*.
2. Aukeratu *Ajustes de servicio activos*.
3. Joan aktibatu nahi duzun konexio-multzoraino eta sakatu **Activar**. Zerbitzu-doikuntzak gordetzeko, konexio-multzoa aktibatu beharko duzu. Zerbitzuarekin konektatzeko behar diren doikuntzak osatzen dute konexio-multzoa.
4. Aukeratu *Editar ajustes de servicio activos*.

Aukeratu doikuntzak, banan-banan, eta sare-operadoreak edo zerbitzu-hornitzaileak emandako informazioaren arabera beharrezkoak diren doikuntza guztiak.

- *Nombre de ajustes*: sartu konexio-multzoaren izen berria.

- *Página de inicio*: idatzi erabili nahi duzun zerbitzuaren hasierako orriaren helbidea (hasierako orria), sakatu ... puntu bat sartzeko.
- *Modo de sesión*: aukeratu *Permanente* edo *Temporal*.
- *Seguridad de conexión*: aukeratu *Activar* edo *Desactivar*.

Konexioko segurtasuna *Activar* gisa definituta badago, zerbitzuarekin konexio segurua erabiltzen saiatuko da telefonoa. Konexio segururik ez badago eskura, ez duzu konexiorik lortuko. Hala ere, konektatu nahi baduzu, konexioa segurua ez bada ere, konexio-segurtasuna *Desactivar* gisa definitu behar duzu.

- *Portador de datos*: aukeratu *Datos GSM* edo *GPRS* aukeratutako garraiatzailearentzat. Ikus aurrerago aukera hauek: Aukeratutako datu-garraiatzailea *Datos GSM* denean dauden doikuntzak eta Aukeratutako datu-garraiatzailea *GPRS* denean dauden doikuntzak.

Prezioei, konexio-abiadurari edo beste edozein gairi buruzko informazioa lortzeko, jar zaitez harremanetan zure sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.

Aukeratutako datu-garraiatzailea *Datos GSM* denean dauden doikuntzak

- *Número de marcación*: sartu telefono-zenbakia.
- *Dirección de IP*: idatzi helbidea, erabili ... puntu bat sartzeko.
- *Tipo de autenticación*: aukeratu *Segura* edo *Normal*.
- *Datu-dei mota*: aukeratu *Análogica* edo *RDSI*.

- *Velocidad de llamada de datos*: aukeratu erabili nahi duzun abiadura edo aukeratu *Automática*. *Automática* aukera datu-deien motarako *Analógica* aukera hautatuta egonez gero dago erabilgarri soilik. Datu-deiaren benetako abiadura zerbitzu-hornitzailearen araberakoa da.
- *Tipo de inicio de sesión*: aukeratu *Manual* edo *Automático*.
- *Nombre de usuario*: sartu erabiltzaile-izena.
- *Contraseña*: sartu pasahitza.

Aukeratutako datu-garraiatzailea GPRS denean dauden doikuntzak

- *Conexión GPRS*: aukeratu *Cuando necesario* edo *Siempre en línea*.
- *Punto de acceso de GPRS*: idatzi sarbide-puntuaren izena.

GPRS sarearekin konektatzeko, beharrezkoa da sarrera-puntu baten izena. Sarbide-puntuaren izena zure sare-operadoreak edo zerbitzu-hornitzaileak eman diezazuke.

- *Dirección de IP*: idatzi helbidea, erabili ... puntu bat sartzeko.

IP helbidea sare-operadoreak edo zerbitzu-hornitzaileak emango dizute.

- *Tipo de autenticación*: aukeratu *Segura* edo *Normal*.
- *Tipo de inicio de sesión*: aukeratu *Manual* edo *Automático*. *Automático* aukeratzen baduzu, saioa hasteko aurreko aukeretan sartutako erabiltzaile-izena eta pasahitza erabiltzen dira. *Manual* aukeratzen baduzu, konektatzerakoan saioa hasteko informazioa sartu beharko duzu.

- *Nombre de usuario*: sartu erabiltzaile-izena.
- *Contraseña*: sartu pasahitza.

Zerbitzu batekin konektatzea

1. Lehenik, ziurtatu erabili nahi duzun zerbitzuaren doikuntzak aktibatuta daudela. Aukerak aktibatzeko:
 - Sakatu *Menú*, aukeratu *Servicios*, *Ajustes*, eta ondoren, *Ajustes de conexión*. Aukeratu *Ajustes de servicio activos*, mugitu aktibatu nahi duzun konexio-multzoraino eta sakatu *Activar*.
2. Bigarrenik, konektatu zerbitzuarekin. Konektatzeko hiru era daude:
 - Ireki hasierako orria, adibidez, zerbitzu-hornitzailearen hasierako orria:

Sakatu *Menú*, aukeratu *Servicios* eta *Inicio*, edo, pantaila zuri dagoela, luze sakatu  Interneteko tekla.
 - Hautatu zerbitzuko gogokoetako aukeretako bat:

Sakatu *Menú*, aukeratu *Servicios*, *Favoritos* eta, ondoren, aukeratu gogoko bat.

Hautaturiko aukera aktibatuta dauden zerbitzu-doikuntzekin ez badabil, aktiba ezazu zerbitzu-doikuntzako beste multzo bat eta saia zaitez berriz.
 - Idatzi zerbitzuaren helbidea:

Sakatu **Menú**, aukeratu *Servicios* eta, ondoren, *Ir a dirección*.

Sartu zerbitzuaren helbidea eta sakatu **Aceptar**. Gogoratu ez dela beharrezkoa helbidearen aurrean <http://> protokoloa gehitzea, automatikoki gehituko baita.

Zerbitzu baten orrietan nabigatzea

Zerbitzu batekin konektatu ondoren, haren orrietan nabigatzen has zaitezke. Telefono-teklen funtzioa zerbitzuen arabera alda daiteke. Segitu pantailan agertuko diren jarraibideei. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

GPRS aukera datu-eramaile bezala aktibatuta badago, kontuan izan nabigatzen ari zarenean pantailaren goiko ezkerreko aldean  adierazlea agertuko dela. GPRS konexio batean dei bat edo testu-mezu bat jasotzen edo dei bat egiten baduzu, pantailaren goiko eskuinaldean  adierazlea agertuko da, GPRS konexioa eten egin dela (zain dagoela) adierazteko. Deia ren ondoren, adibidez, telefonoa GPRS konexioa berriro ezartzen saiatzen da.

Nabigatzean telefono-teklak erabiltzea

- Erabili desplazamendu-teklak orrian nabigatzeko.
- Sakatu  nabarmenduriko elementu bat aukeratzeko.
- Letrak eta zenbakiak sartzeko, sakatu 0  - 9 wxyz teklak. Karaktere bereziak txertatzeko, sakatu * + tekla.

Nabigazioan dauden aukerak

Sakatu *Opciones* eta eskura dituzun aukera hauek bistaratuko dira. Zerbitzu-hornitzaileak aukera gehiago eskain ditzake. Hautatu:

- *Inicio*: aukeratutako zerbitzuaren hasierako orrira itzultzeko.
- *Favoritos*. Ikus Gogokoak, 125. orrialdean.
- *Añadir favorito*, orria gogokoen karpetan gordetzeko.
- *Enlaces descargas*, gogokoen zerrenda ikusteko, horiek deskargatzeko.
- *Accesos directos*, esate baterako orri jakin bateko aukera espezifikoen zerrenda berri bat irekitzeko.
- *Ver imagen* edo *Ver imágenes*, orritik irudiak eta animazioak ikusteko.
- *Llamar / Editar / Abrir fila / Abrir / Abrir lista* dei bat egiteko, sartu testua edo aukeratu orrian nabarmendutako elementuetako bat.
- *Ir a dirección*, sartu nahi duzun zerbitzuaren helbidea sartzeko.
- *Buz. entrada serv.*. Ikus Sarrerako postontzia, 126. orrialdean.
- *Ajustes aspecto*. Ikus Modu anitzeko nabigatzailearen itxura-doikuntzak, 123. orrialdean.
- *Ajustes de cookies*. Ikus Cookien doikuntzak aukeratzea, 124. orrialdean.
- *Usar detalle*, uneko orritik zenbakiak, helbide elektronikoak eta web orrien helbideak ateratzeko.
- *Volver a cargar*, berriro kargatzeko eta uneko orria eguneratzeko.
- *Borrar la caché*. Ikus Cache memoria ezabatzea, 127. orrialdean.

- *Info de seguridad*, uneko konexioari eta zerbitzariari buruzko informazioa ikusteko.
- *Abandonar*. Ikus Zerbitzu bat deskonektatzea, 123. orrialdean.



Oharra: Pasahitza eskatzen duen informazio konfidentzialera sartzen saiatu bazara edo sartu bazara (esate baterako, zure banku-kontura), hustu telefonoaren cachea erabiltzen duzun bakoitzean. Cachea husteko, ikus Cache memoria ezabatzea, 127. orrialdean.

Zuzeneko deia

Modu anitzeko nabigatzailea nabigazioan sar zaitezkeen funtzio horiekin bateragarria da. Ahots-dei bat egin dezakezu, ahots-dei bat egiten ari zaren bitartean DTMF tonuak bidal ditzakezu eta orri batetik izen eta telefono-zenbakiak gorde ditzakezu aurkibidean.

Zerbitzu bat deskonektatzea

Nabigazioa amaitu eta konexioa bertan behera uzteko, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Abandonar*. Pantailan *¿Desea dejar de navegar?* bistaratzen denean, sakatu *Sí*.

Aukerako metodo gisa, sakatu  Aukeratutako datu-garraiatzailea *Datos GSM* bada, sakatu  bitan. Telefonoak zerbitzuarekin duen konexioa eten egingo du.

Modu anitzeko nabigatzailearen itxura-doikuntzak

1. Nabigazioan, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Otras opciones* eta *Ajustes aspecto*,

edo, pantaila zuri dagoela, sakatu *Menú*, aukeratu *Servicios*, *Ajustes* eta, ondoren, *Ajustes de aspecto*.

2. Aukeratu *Ajuste de líneas de texto*. Aukeratu *Activar* eta testuak hurrengo lerroan segituko du, lerro bakarrean bistara ezin badaiteke. *Desactivar* aukeratu baduzu, testua laburtu egiten da oso luzea bada, lerro bakarrean sartu ahal izateko.

Aukeratu *Mostrar imágenes*. Aukeratu *No* eta orriko irudiak ez dira bistaratuko. Horrela, bizkorrago nabigatuko da irudi ugari dituzten orrietan.

Cookieen doikuntzak aukeratzea

Orri batek telefonoaren esploratzailearen Cache memorian gordetako zenbait daturi izena emateko balio du «cookie» terminoak. Datuak, esate baterako, erabiltzailearen informazioa edo nabigatzeko lehentasunak izan daitezke. Datu horiek cache memoria ezabatu arte gordeko dira, ikus *Cache memoria ezabatzea atala*, 127. orrialdean.

1. Nabigazioan, sakatu *Opciones*, aukeratu *Otras opciones*, *Seguridad* eta *Cookies*, edo, pantaila zuri dagoela, sakatu *Menú* eta aukeratu *Servicios*, *Ajustes*, *Ajustes de seguridad* eta *Cookies*.
2. Aukeratu *Permitir* edo *Rechazar*, telefonoak "cookie"-ak jasotzea ahalbidetzeko edo eragozteko.

Gogokoak

Orrietako helbideak gogoko gisa biltegira daitezke telefonoaren memorian.

1. Nabigazioan, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Favoritos*, edo, pantaila zuri dagoela, sakatu *Menú*, aukeratu *Servicios*, eta, ondoren, *Favoritos*.
2. Mugitu erabili nahi duzun aukeraraino eta sakatu *Opciones*.
3. Aukeratutako *Ira* aukeratutako gogokoarekin lotuta dagoen orriarekin konektatzeko. Halaber, aukeratutako gogokoaren izenburua eta helbidea ere ikus ditzakezu, aukeratutako gogokoa editatu edo ezaba dezakezu (mezu berri gisa) edo gogoko berri bat sor dezakezu.



Telefonoak Nokiarekin lotuta ez dauden gune gogoko batzuk izan ditzake aurrez instalatuta. Nokiak ez ditu gune horiek bermatzen eta babesten. Horietara sartzen bazara, Interneteko beste edozein lekutan hartuko zenituzkeen ardura berak hartu beharko dituzu segurtasunari eta edukiari dagokienez.

Gogokoak hartzea

Gogoko bat jasotzen duzunean (gogoko gisa bidalita), *1 favorito recibido* mezua bistaratuko da. Sakatu *Ver*, ondoren *Opciones* eta aukeratu *Ver* gogokoa ikusteko, *Guardar* gordetzeko edo *Descartar* gorde nahi ez baduzu.

Deskargatzea

1. Dei-seinale, irudi, joko edo aplikazio gehiago deskargatzeko telefonoan, sakatu *Menú*, aukeratu *Servicios* eta *Enlaces* descargas.

2. Aukeratu *Descargas tonos*, *Descargas imágs.*, *Descargas juegos* edo *Descargas aplics.*, hurrenez hurren, dei-seinaleak, irudiak, jokoak edo aplikazioak deskargatzeko.

Konfiantzako iturrietatik bakarrik deskargatu. Ikus, halaber, *Jokoak* deskargatzea 106. orrialdean eta *Aplikazioak* deskargatzea 109. orrialdean.

Sarrerako postontzia

Telefonoak zure zerbitzu-hornitzaileak igorritako zerbitzu-mezuak (hedapen-mezuak) jaso ditzake. Zerbitzu-mezuak, esate baterako, berri-tituluen jakinarazpenak dira, eta testu-mezu bat edo zerbitzu baten helbidea izan ditzakete.

Pantaila zuri dagoela *Buz. entrada serv.* aukeran sartzeko, sakatu *Mostrar* zerbitzu-mezu bat jaso duzunean.

- Salir sakatzen baduzu, mezua *Buz. entrada serv.* aukerara pasatzen da. *Buz. entrada serv.* aukerara geroago sartzeko, sakatu *Menú*, eta hautatu *Servicios*, *Ajustes* eta, ondoren, *Buz. entrada serv.*

Nabigatzen ari zarela *Buz. entrada serv.* aukeran sartzeko, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Otras opciones* eta *Buz. entrada serv.*. Mugitu nahi duzun mezuraino eta sakatu *Opciones*. Aukeratu *Recuperar* modu anitzeko nabigatzailea aktibatzeke eta deskargatu markatutako edukia; aukeratu *Detalles* zerbitzuaren jakinarazpenari buruzko informazio xehea ikusteko, edo *Borrar*, ezabatzeke.

Zerbitzuko sarrerako postontziaren doikuntzak

Sakatu Menú, aukeratu *Servicios*, *Ajustes* eta, ondoren, *Ajustes de buzón entrada de servic..*

- Aukeratu *Mensajes de servicio* eta *Activar* (edo *Desactivar*) zerbitzu-mezuak jasotzeko (edo ez jasotzeko) moduan konfiguratzeko telefonoa.
- Aukeratu *Conexión automática*. Telefonoa zerbitzu-mezuak jasotzeko moduan konfiguratu baduzu eta *Conexión automática activada* aukeratzen baduzu, telefonoak automatikoki aktibatuko du nabigatzailea mezua jasotzen duenean.

Conexión automática desactivada hautatzen baduzu, telefonoak *Recuperar* aukeratu baduzu eta zerbitzu-mezu bat jaso baduzu bakarrik aktibatuko da telefonoa.

Cache memoria ezabatzea

Sartu zareneko informazioa edo zerbitzuak telefonoaren cache memorian jasotzen dira. Cachea tarteko memoria da, datuak aldi baterako gordetzeko erabiltzen dena. Cache memoria ezabatzeko:

- nabigazioan, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Otras opciones* eta *Borrar la caché*, edo
- pantaila zuri dagoela, sakatu Menú, aukeratu *Servicios* eta, ondoren, *Borrar la caché*.

Baimen–ziurtagiriak

Zerbitzu batzuk erabiltzeko (esate baterako, banku–zerbitzuak), segurtasun–ziurtagiriak beharko dituzu. Ziurtagiria erabiltzeak telefonoaren eta pasabidearen edo zerbitzariaren arteko konexioen segurtasuna hobetzen lagunduko dizu, betiere *Seguridad de conexión* aukera *Activar* gisa hautatuta badago.

Orrien baimen–ziurtagiria deskarga dezakezu zerbitzuak ziurtagiri–mota horren erabilera onartzen badu. Behin deskargatuta, ziurtagiria ikusi, gorde edo ezaba daiteke. Gordetako ziurtagiriak telefonoaren ziurtagirien zerrendan sartzen dira.

Zerbitzuaren edo pasabidearen identitatea ezin bada egiaztatu, zerbitzuaren edo pasabidearen ziurtagiria benetakoa ez bada edo telefonoan baimen–ziurtagiri egokia ez baduzu, telefonoak jakinarazi egingo dizu.

Baimen–ziurtagirien zerrenda bistaratzea

Sakatu **Menú**, aukeratu *Servicios, Ajustes, Ajustes de seguridad* eta, ondoren, *Certificados de autoridad*.

Ikus, halaber, *Info de seguridad* Nabigatzean telefono–teklak erabiltzea atala 121. orrialdean.

Segurtasun–adierazlea

Konexio batean segurtasun–adierazlea agertzen bada , telefonoaren eta pasabidearen edo zerbitzariaren (*Editar ajustes de servicio activos* aukera *Dirección de IP* gisa identifikatuta) arteko datu–transmisioa enkriptatua izango da. Dena den, segurtasun–adierazleak ez du adierazten pasabidearen eta edukien zerbitzariaren (eskaturiko baliabidea gordetzen den lekua) arteko datu–transmisioa segurua denik.

Pasabidearen eta edukien zerbitzariaren arteko datu-transmisioa ziurtatzea zerbitzu-hornitzailearen esku dago.

■ Joan hona (13. menua)



Hainbat funtziotara bizkor sartzeko, sakatu **Menú**, aukeratu *lra* eta aukeratu zerrendan zuk nahi duzun funtzioa. Zerrendatik funtzio gehiago kentzeko edo gehiago eransteke, ikus **Zuzeneko sarbide pertsonalak**, 84. orrialdean.

■ SIM zerbitzuak (14. menua)



Telefonoan erabilgarri dauden funtzioez gain, zure SIM txartelak, menu honetako zerbitzuez gain, beste zerbitzu osagarri batzuk ere eskain ditzake. SIM txartelak onartzen badu bakarrik bistaratuko da. Menuaren izena eta edukia eskura dauden zerbitzuen menpe daude.



Oharra: SIM zerbitzuen erabilgarritasunari, tarifei eta informazioari buruzko zehaztasun gehiago izateko, jarri harremanetan zure SIM txartelaren banatzailearekin: sare-operadorea, zerbitzu-hornitzailea edo beste banatzaileraren bat.

SIM zerbitzuak erabiltzean telefonoaren eta sarearen artean igorritako baieztapen-mezuak erakusteko moduan konfigura daiteke telefonoa. Horretarako, aukeratu *Sí* 4-3-6 menuetan, *Confirmar acciones de servicio de SIM*.

Zerbitzu horietara sartzeak testu-mezu bat (SMS) igortzea edo telefono-dei bat norberaren kargu egitea ekar dezake.

6. PCrako konektagarritasuna

PC Suite-rekin, adibidez, mezu-testuak eta irudiak bidal ditzakezu eta telefonoaren eta PC bateragarri baten arteko kontaktuak eta agenda sinkroniza ditzakezu.

Konektatu DKU-5 konektagarritasun-egokigailuaren haria ordenagailuaren atzeko aldean dagoen USB atakara eta telefonoaren konektorea.

Informazio gehiago izateko eta deskargatzeko artxiboak lortzeko (adibidez, PC Suite), begiratu Nokiaren web gunean (www.nokia.com).

■ PC Suite

PC Suite-k aplikazio hauek ditu:

- **Nokia Application Installer**, PCTik telefonoan Java aplikazioak instalatzeko.
- **Nokia Image Converter**, irudiak multimedia-mezuetan edo horma-paperetan erabili ahal izateko eta telefonora transferitzeko.
- **Nokia Sound Converter**, dei-seinaleak telefonoarekin bateragarria izateko moduan editatzeko eta horiek telefonora transferitzeko.
- **Nokia Content Copier**, informazioa kopiatzeko edo telefonoko segurtasun-kopiak PC batean edo Nokiaren beste telefono bateragarri batean egiteko.
- **Nokia PC WAP Manager**, gogokoak editatzeko eta bidaltzeko, edo telefonoaren konexio-multzoak eguneratzeko.

- **Nokia Phone Editor**, testu-mezuak bidaltzeko eta telefonoko aurkibideak eta mezuen doikuntzak editatzeko.
- **Nokia PC Sync**, telefonoaren eta PC bateragarri baten aurkibidea eta agenda sinkronizatzeko.
- **Nokia Connection Manager**, PCaren eta telefonoaren arteko konexio-mota aukeratzeko.
- **Nokia Phone Browser**, telefono batetik PC batera eta alderantziz irudiak eta dei-seinaleak kopiaatzeko.



Oharra: Copyright-en babesak irudiak, dei-seinaleak eta beste eduki-mota batzuk kopiazea, aldatzea, transferitzea edo berriro bidaltzea ekidin dezake.

7. Bateriari buruzko informazioa

■ Kargatzea eta deskargatzea

Telefonoak elikadura elektrikoa jasotzen du, berriz kargatzen den bateria baten bidez.

Kontuan hartu bateria baten erabateko errendimendua bi edo hiru aldiz erabat kargatu eta deskargatu ondoren soilik lortzen dela!

Bateria sarritan karga eta deskarga daiteke, baina denborarekin gastatu egingo da.

Funtzionamendu-denbora (elkarrizketa eta deiak jasotzeko/egiteko egoera) ohikoa baino askoz ere laburragoa denean, bateria berri bat erosi beharko duzu.

Telefonoaren fabrikatzaileak soilik onetsitako bateria erabil ezazu eta fabrikatzaileak onetsitako kargagailuekin soilik kargatu berriz bateria. Kargagailua erabiltzen ari ez zarenean, deskonekta ezazu. Ez utzi bateria kargagailu bati konektatuta astebete baino gehiago, gaintxak haren iraupena labur baitezake. Erabiltzen ez den eta erabat kargaturik dagoen bateria bat bere kasa deskargatuko da denboraldi baten buruan.

Muturreko tenperaturek bateriaren karga-ahalmenari eragin diezaiokete.

Erabili bateria diseinatu zuteneko helbururako soilik.

Ez erabili inoiz kargagailua edo bateria hondatuta badaude.

Ez egin zirkuitulaburrik bateriari. Ustekabeko zirkuitulaburra sor daiteke, esate baterako, sakelan edo zorroan metalezko objektu baten ondoan (txapon bat, klip bat edo bolaluma bat) ordezkotako bateria badaramazu, horrek bateriaren + eta – terminalen (bateriaren atzealdean dauden metalezko bandak) zuzeneko konexioa eragiten baitu. Terminalen zirkuitulaburrak bateria edo horri konektaturiko objektua honda ditzake.

Bateria leku hotzetan edo beroetan uzten baduzu, esate baterako, udan edo neguan erabat itxita dagoen ibilgailuan, bateriaren ahalmena eta iraupena murriztu egingo dira. Saia zaitez beti 15 °C eta 25 °C (15,00 °C eta 25,00 °C) artean izaten. Bateria hotzegia edo beroegia duen telefonoak baliteke denboraldi batean ongi ez funtzionatzea, baita erabat kargatuta badago ere. Izozte-puntuaren azpitik dauden temperaturek bereziki mugatzen dute bateriaren errendimendua.

Ez bota sutara bateriarik! Bota bateriak tokian tokiko arauen arabera (adibidez, birziklatu). Ez bota bateriak zakarrontzira.

ZAINKETA ETA MANTENTZE-LANA

Telefono hau diseinu eta fabrikazio bikaineko produktua da eta arduraz zaindu behar da. Ondoren bilduriko iradokizunak lagungarri izango zaizkizu berme-baldintzak bete eta produktu honetaz urteetan gozatzeko.

- Ez utzi telefonoa eta haren pieza osagarriak haurren eskueran.
- Ez busti telefonoa. Euriak, hezetasunak eta likidoek zirkuitu elektronikoak oxida ditzaketen mineralak dituzte.
- Ez erabili eta ez gorde telefonoa leku zikinetan edo hautsez betetakoetan. Pieza mugikorrek hondatu egin daitezke.
- Ez gorde telefonoa leku beroetan. Tenperatura altuek gailu elektronikoen iraupena gutxitu dezakete, bateria kalte dezakete eta zenbait plastiko deformatu edo desegin egin ditzakete.
- Ez gorde telefonoa leku hotzetan. Telefonoak ohiko tenperatura berreskuratzen duenean, hezetasuna sor daiteke barrualdean, eta horrek zirkuitu elektronikoen plakak kalte ditzake.
- Ez saiatu telefonoa irekitzen. Telefonoa espezializatu gabeko pertsonak manipulatzeko badute, kalteak eragin diezazkiokete.
- Ez utzi lurrera erortzen, ez kolperik eman eta ez mugitu zakarki telefonoa. Zakarki manipulatzeko baduzu, barne-zirkuituetako plakak hautsi egin daitezke.
- Ez erabili produktu kimiko kaltegarriarik, disolbagarriarik edo garbigarri sendorik telefonoa garbitzeko.
- Ez pintatu telefonoa. Pinturak pieza mugikorrek oztopa ditzake eta behar bezala funtzionatzea galaraz dezake.

- Erabili telefonoak berez daukan antena edo onetsitako ordezeko antena soilik. Baimenik gabeko antenek, aldaketek eta erantsitako elementuek kaltea eragin diezaiokeste telefonoari eta irrati-aparatuei buruzko araudia urra dezakete.

Gomendio horiek guztiak berdin-berdin aplikatzen zaizkie telefonoari, bateriari, kargagailuari eta gainerako osagarriei. Horietakoren bat behar bezala ez badabil, eraman hurbilen duzun baimenduriko banatzaileari. Bertako langileek arazoa konpontzen lagunduko dizute, eta, hala behar izanez gero, zerbitzu teknikoa eskainiko dizute.

SEGURTASUNARI BURUZKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA

■ Errepideko segurtasuna

Ez erabili telefono mugikorra gidatzen ari zarenean. Jarri beti telefonoa bere euskarrian, ez utzi kopilotuaren eserlekuan edo talka eginda edo bat-batean geldituta aska daitekeen lekuan.

Gogoratu: Errepidean kontuz ibiltzea da funtsezkoena!

■ Ingurune operatiboa

Errespeta ezazu zu zauden tokian indarrean dagoen araudi berezia eta itzali telefonoa erabiltzea debekatuta dagoenean, interferentziak eragin ditzakeenean edo arriskutsua izan daitekeenean.

Erabili telefonoa funtzionamenduko posizio normaletan soilik. Zenbait osagarri magnetikoak dira. Telefonoak metalezko materialak erakar ditzake, eta audiofonia duten pertsonak ez lukete telefonoa belarrira hurbildu behar audiofonia jarrita badute. Jarri beti telefonoa bere euskarrian, audiofonoak metalezko piezak erakar baititzake. Ez jarri kreditu-txartelik, ez bitarteko magnetikoak ere telefonotik gertu, horietan gordetako informazioa ezaba baitaiteke.

■ Gailu elektronikoak

Ekipo elektroniko moderno gehienek irrati-maiztasuneko (RF) seinaleen aurkako babesa dute. Hala ere, baliteke ekipo elektroniko jakin batzuk zure telefono mugikorraren IM seinaleetatik babesturik ez egotea.

Taupada-markagailua

Taupada-markagailuen fabrikatzaileek telefono mugikorraren eta taupada-markagailuaren artean gutxienez 20 cm-ko distantzia izateko gomendatzen dute, taupada-markagailuarekin interferentziak sortzea galarazteko. Gomendio horiek ikerketa independenteen eta telefonia mugikorreko ikerketa teknologikoen ondorioak dira. Taupada-markagailua duten pertsonak:

- Telefonoa aktibatuta dagoenean, taupada-markagailutik gutxienez 20 cm-ra eduki behar dute.
- Telefonoa ez dute eraman behar bularraren parean dagoen sakelan.
- Taupada-markagailuaren aurkako aldeko belarrian erabili behar dute interferentzia-arriskua ahal bezainbeste murrizteko.
- Interferentziaren bat gertatzen ari den susmorik baduzu, itzali berehala telefonoa.

Entzuteko aparatuak

Zenbait telefono mugikor digitaletan interferentziak eragin ditzakete audiofono jakin batzuekin. Horrelako interferentziak gertatzen badira, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Beste zenbait tresna mediko

Irrati-transmisioko ekipoei, telefono mugikorrak barne, interferentziak eragin ditzakete behar bezala babestuta ez dauden tresna medikoen funtzionamenduan. Kontsultatu mediku batekin edo aparatu medikoaren fabrikatzailearekin, IM kanpo-seinaleen aurka behar bezala babestuta dauden jakiteko edo edozein zalantza argitzeko. Itzali telefonoa hala adierazten dizuten erietxeetako leku berezietan. Litekeena da ospitale eta erietxeetan IM kanpo-seinaleekiko sentikorrak diren ekipoei erabiltzea.

Ibilgailuak

Behar bezala instalatuta edo babestuta ez dauden motordun ibilgailuetako sistema elektronikoei eragin diezaiekete IM seinaleek (esate baterako, injeziozko sistema elektronikoak, ibilgailuen balaztak blokeatzea eragozten duen balazta-sistema elektronikoak –ABS–, abiadura kontrolatzeko sistema elektronikoak, airbag-sistemak). Egiaztatu alderdi horiek zure ibilgailuaren fabrikatzailearekin edo haren ordezkariarekin. Geroago zure ibilgailuan gaineraturiko ekipoei buruzko kontsulta ere egin diezaiokezu fabrikatzaileari.

Informazio-oharrak

Deskonektatu telefonoak informazio-oharrak hala adierazten dizuten lekuetan.

■ Leherketak gerta daitezkeen inguruak

Deskonektatu telefonoa leherketak gerta daitezkeen eremuetan, eta bete seinale eta argibide guztiak. Eremu horietan eztaudak edo suteak izan litezke txinparten ondorioz, eta horiek kalte pertsonalak eragin ditzakete, baita heriotza ere.

Erabiltzaileei jakinarazten zaie telefonoa itzali egin behar dutela gasolina-zerbitzuguneetan (zerbitzuguneak) eta irrati-ekipoak erabiltzeko mugak errespetatu egin behar dituztela erregaï-deposituetan (erregaia biltegitratu eta banatzeko eremuak), instalazio kimikoetan eta leherketak egiten diren lekuetan.

Leherketak gerta daitezkeen guneak argi eta garbi adierazita daude sarritan, baina ez beti. Horietako batzuk hauek dira: itsasontzietako kubiartak; produktu kimikoak biltegitratu eta garraiatzeko instalazioak; petrolio-gas likidotua (adibidez, propanoa edo butanoa) erabiltzen duten ibilgailuak; airean partikula edo elementu kimikoak (adibidez, pikorra, hautsa edo metalezko partikulak) dauden eremuak, eta normalean ibilgailuaren motorra itzaltzeko eskatzen diren eremuak.

■ Ibilgailuak

Langile trebatuek soilik konpon dezakete telefonoa edo instala dezakete ibilgailu batean. Behar bezala instalatu edo konpondu ez bada, arriskutsua gerta daiteke eta unitateari aplikatzen zaion bermea baliogabetu.

Maiz egiaztatu zure ibilgailuko telefono mugikorraren ekipo osoa behar bezala muntatuta dagoela eta behar bezala dabilela. Ez biltegitatu eta garraiatu likido sukoirik, gasik eta material lehegarririk telefonoa eta haren pieza edo osagarriak dauden leku berean.

Airbaga duen ibilgailua baduzu, gogoratu indar handiz puzten dela. Ez jarri objekturik –ez instalaturiko ekipoa, eta ez telefono mugikorraren pieza eramangarriak– airbagaren gainean edo hori zabalduko den gunearen gainean. Telefonía mugikorreko ekipoa ibilgailuaren barruan behar bezala instalatuta ez badago eta airbaga zabaldu egiten bada, zauri larriak eragin ditzake.

Debekatuta dago telefonoa hegaldietan erabiltzea. Itzali telefonoa hegazkinean sartu aurretik. Telefono mugikorrak hegazkinean erabiltzea arriskutsua izan daiteke hegazkinaren beraren funtzionamenduarentzat, eta telefono mugikorraren sarearen konexioa eten egin dezake; gainera, legez kontrakoa da.

Argibide hauek ez betetzeak araua hautsi duen pertsonari telefono–zerbitzua etetea edo ukatzea eragin dezake; gainera, legezko bidea ireki daiteke edo bi gauzak batera gerta daitezke.

■ Larrialdi-deiak



Garrantzitsua: Telefono hau, beste edozein telefono mugikor bezala, irratiseinaleekin, haririk gabeko eta lurreko sareekin eta erabiltzaileak programatutako funtzioekin dabil. Horregatik, ezin daiteke bermatu konexioek egoera guztietan funtzionatuko dutenik. Horrenbestez, ez duzu inoiz telefono mugikor bakar bat izan behar komunikazio garrantzitsuetarako (esate baterako, larrialdi medikoak).

Agian ezin izango dira larrialdi-deiak egin telefono mugikorraren sare guztietan edo sare-zerbitzu edo telefonoaren funtzio jakinak erabiltzen direnean. Kontsultatu tokian tokiko zerbitzu-hornitzaileekin.

Larrialdi-dei bat egiteko:

1. Telefonoa piztuta ez badago, piztu. Egiaztatu seinale-intentsitatea egokia dela. Zenbait sarek telefonoan baliozko SIM txartel bat jartzeko eska dezakete.
2. Sakatu  behar adina alditan (adibidez, dei bat amaitzeko, menutik ateratzeko, etab.) pantailan ezabatu eta deitzeko.
3. Tekleatu zu zauden tokiko larrialdi-zenbakia (adibidez, 112, 911 edo beste edozein larrialdi-zenbaki ofizial). Larrialdi-zenbakiak aldatu egin daitezke herri batetik bestera.
4. Sakatu  tekla.

Zenbait funtzio aktibatuta badaude, agian desaktibatu egin beharko dituzu larrialdi-dei bat egin ahal izateko. Kontsultatu gida hau eta tokian tokiko zerbitzu zelularreko zure hornitzailearekin. Larrialdi-dei bat egitean, ez ahaztu beharrezkoa den informazio guztia ahalik eta xeheen zehazteaz. Gogoratu istripuaren lekuan telefono mugikorra izan daitekeela komunikazio-bitarteko bakarra: ez eten komunikazioa hala adierazten dizuten arte.

■ Absortzio Espezifikoaren Tasaren (SAR) ziurtagiria.

TELEFONO-MODELO HONEK IRRATI-UHINEK PERTSONENGAN DUTEN ERAGINAREN EB-REN ESKAKIZUNAK BETETZEN DITU Zure telefono mugikorra irrati-transmisorea eta irrati-hargailua da. Nazioarteko arauak (ICNIRP) gomendaturiko irrati-maiztasunaren energiako (IM) esposizio-mugak ez gainditzeko diseinatuta eta fabrikatuta dago. Muga horiek zuzentarau zehatz batzuen zati dira, eta herritarrentzat baimenduriko IMren energia-mailak ezartzen dituzte. Erakunde zientifiko independenteek garatu dituzte zuzentarau horiek, azterlan zientifiko aldizkako ebaluazio zehatzaren bidez. Arau horiek segurtasun-tarte handia dute, pertsona guztien segurtasuna bermatzeko, pertsonak duten adina edo osasun-egoera kontuan hartu gabe.

Telefono mugikorretarako esposizio estandarreko indizea Absortzio Espezifikoaren Tasa edo SAR (Specific Absorption Rate) izeneko unitatearekin neurtzen da. Arauetan zehaztutako muga-tasa 2,0 W/kg da. SAR probak funtzionamendu estandarreko posizioetan egiten dira, eta telefonoak berriz potentzia-maila ziurtatu handienara transmititzen du probaturiko frekuentzia-banda guzietan. SAR ziurtatutako potentzia-maila handienara zehazten den arren, telefonoaren funtzionamenduko tasa erreala gehienezko balioaren azpitik egon ohi da nabarmen. Telefonoa hainbat potentzia-mailatan funtzionatzeko eta sarera konektatzeko behar den potentzia bakarrik erabiltzeko diseinatuta dagoelako gertatzen da hori. Normalean, telefonia mugikorreko antena batetik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta txikiagoa da energia-emisioa.

Gailu honentzat ezarritako SAR balio altuena, telefonoa belarrian jarrita erabiltzen denerako, 0,79 W/kg da. Produktu honek irrati-maiztasunaren energiarekiko esposizioa arautzen duten arauak betetzen ditu, bai belarriaren ondoan, bai gorputzeko 2,2 cm gutxienez edukitzen denean ere. Produktua zorro babesle batekin, gerriko pintza batekin edo euskarri batekin gorputzetik gertu erabiltzen baduzu, komeni da zuk metalik gainean ez izatea eta produktua gorputzetik 2,2 cm-ra gutxienez izan behar duzu.

Mezuak edo datu-fitxategiak transmititzeko, gailu honek kalitateko sare-konexioa behar du. Kasu batzuetan, mezuen edo datu-fitxategien transmisioa atzeratu egin liteke konexio egokia erabilgarri egon arte. Ziurtatu transmisioa amaitu bitartean distantziei buruzko jarraibideak betetzen dituzula.

*Jendeak erabiltzen dituen telefono mugikorretarako SAR muga 2,0 Watt/kilogramo (W/kg) da batez beste, giza ehunaren hamar gramoko. Jarraibideek segurtasun-tarte nabarmena dute, jendearentzat babes gehigarria ezartzen duena eta neurrien edozein aldaketa kontuan hartzen duena. Absortzio espezifikoaren tasaren balioak (SAR) estatu bakoitzeko informazio-eskakizunen eta sarearen bandaren arabekoak dira. Beste eskualdeetako absortzio espezifikoaren tasaren inguruko informazio gehiago lortzeko, kontsultatu produktuari buruzko informazioa www.nokia.com helbidean.



mœvil

